

ETNOGRAFOA IZAN NAHI DUT

Dinarrizko gida metodologikoa



Manex Mailharin

Olaia Matxain

Nerea Fernandez

AURKIBIDEA

Zergatik da beharrezkoa gida hau?.....	3
Gidari sarrera.....	3
1. IKERKETA PROIEKTUA.....	5
2. METODOLOGIA.....	15
3. ETNOGRAFIAREN HISTORIA.....	25
4. TEKNIKA ETNOGRAFIKOAK.....	36
Ondorio orokorra.....	49
Bibliografia.....	50

Zergatik da gida hau beharrezkoa?

Ziur aski zuetako gutxik jarri duzue zalantzan ikerketa etnografikoa burutzeko aholku eta pausuen beharra. Hala ere, ez da gaizki etorriko gida metodologiko egoki baten beharra gogora ekartzea.

Izan ere, sarritan etxea teilatutik eraikitzen hasten gara gure eguneroko jardunean, eta ikerketan ere ez da aparteko gauzarik gertatzen. Ikergaia argi dugu, baina ez dakigu zer bilatzen dugun auzi horren baitan; edo argi dugu zeintzuk diren gure helburuak baina ez dugu pentsatu zein den horiek betetzeko eremu fisikorik egokiena, ez eta zer egin hara iristeko, zentzu zabalean ulertuta.

Hori dela eta, oso baliagarria da ikerketa oro hasi aurretik hura diseinatzen eta baita diseinua egin ondoren, teknika ezberdinak aurrera eramaten lagunduko digun gida bat aurrean izatea. Horrek lagunduko digu ikerketan bat egiteak eskatzen dituen lan zehatzak argi izatea eta gure denboran ongi kokatzea.

Bada, hain zuzen ere horretarako bokazioz idatzi dugu gida metodologiko hau. Espero dugu lagungarria izatea eta hemendik aurrera, zure lan etnografikoak, txiki zein handi, labur ala luze, ahalik eta osatuenak izan daitezen ekarpena egitea.

Gidari sarrera

Etnografia egiteko bideari ekiten diogunean, argi izan behar dugu honakoa ez dela momentuan momentuko inspirazioen arabera egiten, hau da, bideorri markatu beti jarraituz egiten da ikerketa antropologikoa. Honakoa ez da inolaz ere zurruna izango baina landa lana egin aurretiko zein momentuan bertan egin beharreko ikerketa prozesuak hainbat arau edota pausu zehatz ditu, lana ahalik eta osatuen egon dadin, baita zuzena izan dadin ere.

Hartara, honako gida antropologikoan, alor honi atxikita dozen hainbat irizpide azalduko ditugu. Lau ataletan banatu dugu gida, bakoitzean gai desberdin bat jorratuko baitugu.

Beraz, lehenengo atalean, ikerketa proiektuaren nondik norakoak aztertuko ditugu. Proiektua beraren lanketan, aurretik egitea gomendagarriak diren urratsak azalduko dira, hau da, etnologia bera gauzatzen eta errealitatea bera aztertzen hasi aurretiko lanketa bera nolakoa izan behar den azalduko dugu bertan. Bide orri landua izatea komeni da, honakoaren lanketak ikerketa guztia baldintza baitezake.

Bigarren kapituluan, metodologiaren inguruko azalpena izango dugu izpide. Hala, ikerketa baten baitan erabil daitezkeen metodoen inguruan hausnartzea beharrezkotzat dugu, eta horien ezagutza sakona ezinbestekoa da. Hartara, etnografia zuzen bat eraikiko dugu. Gainera, antropologian garrantzitsua da, aztertuko denaren arabera, metodo bat edo bestea erabiltzea, ikerketa berak fruituak eman ditzan.

Azken aurreneko atalean, etnografia ezberdinen irakurketa historiko bat burutuko dugu, hala, historian zehar honakoak izan duen eboluzioa eta jasan dituen aldaketak aztertuko ditugu. Honako garapenaren garrantzia funtsezkoa da, antropologiaren baitan testuinguruaren kokapena ezinbestekoa baita, historikoki jazotakoaren irakurketa egitea beharrezkoa da.

Laugarren eta azken atalean, tekniken inguruko informazioa helaraziko dugu. Bertan, metodologia desberdinen baitan dauden teknika ezberdinen inguruko azalpen sakona burutuko dugu. Azken finean, honakoak dira ikerketa bera burutzeko tresnarik garrantzitsuenak eta hortaz, ezinbestekoak. Landa lana, antropologoak tekniken inguruan duen trebetasunaren arabera izango da.

Hala ere, nahiz eta tekniken trebetasuna zein jakintza ezinbestekoak izan lana ongi burutzeko, osotasun zein zuzentasunari dagokionez, hau da, lan bikain bat eraiki nahi badugu, lau atalen beharra izango dugu. Beraz, gida osoan azaltzen diren atalak ezinbestekoak dira etnologia txukun bat burutu eta plazaratzeko.

1. IKERKETA PROIEKTUA

1.1 ZALANTZA ARRUNTAK

1. Ikerketa proiektuaren diseinua nolakoa izanen da? Finkoa eta zorrotza ala malgua eta moldagarria?
2. Titulua diseinua prestatzerakoan erabakiko dugu, erabaki hau behin betikoa izanen da, ala alda daiteke ikerketan zehar?
3. Zer egin behar dut landa lanean hasi aurretik? Ezer jakin gabe hasi behar naiz informazioa jasotzen?
4. Gaia zehazterako orduan, hipotesiek zertan lagun naitzakete?
5. Zein hipotesi mota ezberdin daude? Eta zeintzuk dira haien berezitasunak?
6. Zeintzuk dira ikerketa diseinua baldintzatzen dituzten aldagaiak?

1.2. SARRERA

Honako atalean, ikerketa proiektu bat burutzeko eman beharreko pausuen azalpen bat egingo dugu, etnografia antropologiko bat egin aurretik, oso garrantzitsua baita eskema edota bideorri bat izatea, azterketa zintzoki eta modu egokian aurrera eramanez ahal izateko. Hortaz, honako ikasgaian, antropologo on batek lana burutzeko eduki beharreko irizpideak plazaratuko ditugu.

Ikerketa proiektuaren nondik norakoak argitzeko, hainbat autoreren testuetan oinarritu gara; besteak beste, Francisco Ferrandiz, Joan Jose Pujadas, Patxi Juaristi eta Anastasia Tellez ikerlariengan.

1.3. AZALPENA

1.3.1- IKERKETA PROIEKTUAREN DISEINUAREN BEHARRA

Ikerketa antropologikoaren atalen artean bi ezberdinu ditzakegu; batetik, gertakarien bilduma eta bestetik jasotako informazioaren sailkapena eta antolakuntza.

Antropologoaren lanean ikerketa proiektu baten lehenagoko diseinuaren beharrak garrantzi handia dauka. Ikerlari batzuen ustez, antropologoak barnetik ikertu behar du gizartea, hau da, giza taldean barneratzea eta kideekin batera bizitzea, honela lortuko baititu interesgarriak suertatu daitezkeen ikergaiak. Beste batzuek, kontrakoa diote, eta aurrez egindako behaketak izango dituzte oinarri. Malinowskyk dioen gisa, mapa mental baten moduko zerbait sortu beharko du antropologoak, orientatu ahal izateko. (Téllez 2007, 74)

Hala ere, biek ala biek aurrez egindako diseinua behar dute, bertan, aztertuko dugunari buruzko informazioa jartzea ezinbestekoa izaki; honakoa non burutuko dugun, kronologia zehatz

bat markatuz... Baina guztiz moldagarria izatea ere garrantzitsua da, lehen aipatu bezala, azterketa prozesuaren baitan eman daitezkeen aldaketak bertan barnebildu ahal izateko eta proiektuak berak aurrera jarrai dezan. Nahiz eta honakoa malgua eta uneoro berreraikia izan, norabidea jarriko dio gure egin behar etnografikoari. (Téllez 2007, 74)

Ikerketa antropologiko baten diseinua planteatzea hurrengo galderei ahalik eta zehatzen erantzutean datza; zer da proposatzen dena, nola burutuko da lana, zein ikerketa egin da lehenago, zein fondo daude ikerketa bermatzeko eta zenbat denbora eskainiko zaio honi. (Williams,1973). Hala ere ez da batere erreza zeintzuk diren hipotesi edota galdera egokienak jakitea. Diseinua beti malgua izan behar da, hortaz aurreko hipotesiak ez dute zertan zehazki determinatuak egon, formulazio zehatza antropologoa landarekin kontaktu zuzenean dagoenean ematen baita. Gainera diseinua uneoro aldatuz joan behar da, ez baita inoiz alde batera uzten. Honakoa irekia edota itxia izan daiteke; itxia izanen da soilik aurrez planteatutako galderak erantzuten baditu eta horietara mugatzen bada, ordea, irekia izanen da planteatutako galderez gain informazio berria jasotzen badu. Antropologian, lehenengo ereduak izanen da egokiena, eta hau hautatuz gero aurkitutako errealitateari egokitu beharko da, hau ez da izanen ikerlariaren borondatekoa, hortaz, ezin izango da ekintzen sekuentzia zorrotz bat aplikatu. (Téllez 2007, 75)

Hurrengo atalean; Umberto Eco (1979) ikerketaren oinarrizko arauak ematen dizkigu. Lehenengoan; gaiak ikerlariaren interes propioei men egin beharko diola azpimarratzen du, hau da, gaia haren munduarekin lotua egon beharko da. Bigarrenean; aukeratutako iturrien eskuragarritasuna kontuan hartu beharrekoa dela aipatzen digu, bai fisikoki bai ekonomikoki. Hirugarrenean; honako iturriak bai ulergarriak bai maneigarriak izan behar direla esaten digu. Eta laugarrenean; ikerketaren marko metodologikoa haren esperientzia teorikotik gertu egon behar dela esanez amaitzen du haren arauen sailkapena. (Téllez 2007, 77)

Arau hauek ez errespetatzeagatik hainbat ikerketa bertan behera utzita izan dira, hortaz euren garrantzia handia da.

Ikerketaren atalak ezin dira bereizi modu garbian, prozesuaren puntu batean elkar solapatzen direlako. Espazio fisikora joan beharreko momentua iristen denean ere, ez da diseinua baztertu behar, baizik eta lekua oso urrun badago diseinua gero eta garatuago egon beharko da. Bestetik, izaera formal, teoriko edota abstraktuko arazoak hala nola; kontzeptu erlijiosoak, klase sozialak, generoak, ekonomikoak edota politikoak aztertzeo, egokiena da izaera teorikoa gehienbat kontuan hartzea, honek izaera zabalagoa duten arazoei konponbidea aurkitzea bermatuko digulako. (Téllez 2007, 78)

Ondorioz, oso garrantzitsua da oinarri on bat edukitzea, honek era guztietako ondorioetara eramango gaitu eta. Zer edo zer berria aurkitzean datza, testuinguru batek lehen begirada batean egin dezakeen ekarpenaz gain. (Téllez 2007, 78)

1.3.2.- IKERKETA PROIEKTUAREN DISEINUAREN GIDOIA

Ikerketa guztien proiektuen diseinuaren lanketak zientifikoa izatea bilatzen du, horretarako errealitate soziokulturala zatitzen saiatuko gara artifizialki, azterketa metodologikoa errazteko. Hortaz, muga fisikoak eta denborazkoak jarriko dizkiogu gure aztergaiari, kontzeptu analitiko batzuen segida bat eraikiz. (Téllez 2007, 79)

1.3.2.1 . IZENBURUA ETA SUBTITULUA

Ikerketa proiektuaren diseinuaren lehen atala daukagu honakoa. Bertan, antropologoak modu zehatz eta garbi batean azaldu beharko du zein den haren aztergaia, izenburuak beti gaiarekiko gerturapena izan behar baitu. Hau ez du zertan definitiboa izan, lehen esan bezala, gidoia moldatzen joaten den heinean gure aztergaiaren nondik norakoak ere aldatzen joaten dira, hortaz, behin betiko titulua amaieran erabakiko dugu, ikerketari osotasun bat emango diona.(Téllez, 2007 81)

1.3.2.2. SARRERA ETA GAIAREN NONDIK NORAKOAK

Jarraian, sarrera bat garatuko dugu, etnografiaren irakurtzaileei ulergarritasuna bermatzeko. Hortaz, honakoa laburra eta garbia izango da. Bertan, soilik, gaia zein den eta zein motatakoa den zehaztuko dugu, bestetik, honakoaren azterketa eremuaren informazioa plazaratuko dugu.(Téllez 2007, 82)

- Ikerketaren gaia

Gaiak berrikuntzaren bat eskaini beharko du, hots, aztergaia ezezaguna izanen da, edota nahiz eta aztergaia ezaguna izan, hau aztertzean erabilitako ikuspegia berria suertatu behar zaio irakurtzaileei. Ikerketa oro enkarguak dira eta hauek organismo, entitate edo pertsona zehatz batek eginak izan daitezke, antropologo berak ere izan dezake inizatiba. (Téllez 2007, 82)

Bi galdera erantzun beharko dira gaia hautatzerakoan, batetik; zer ikertzen da?, eta bestetik; zer bilatzen da? (intentzioa). Gainera, gai gehienek aldagai ezberdinak dituzte eta horiek ere zehaztu behar dira. Aldagaiak ezaugarri zehatzak dira, balore edo kategoria ezberdinak daudenean bereizten direnak (adina, sexua, diru sarrerak...). Ikerketa soziokultural guztiak aldagai zehatzetan oinarritzen dira eta ikerketa proiektuaren fase guztietan ageri dira. (Téllez 2007, 83)

Gaiak lau era izango ditu garapena burutzeko. Batetik, deskribapena egongo litzateke, honakoa, aztergaiaren elementu nagusi guztiak edota gehienak aztertzean datza. Beste mota bat konparatiboa izango litzateke, hau deskribapenarekin batera egin daiteke, ikerketa antropologiko oro konparaketa modukoak baitira. Beste aukera bat azalpena egitea litzateke, honek, egoera eta fenomeno berrien kausak azalduko ditu. Eta azkenik, modu aplikatua genuke, hau errealitate sozio kulturean planteatutako arazo praktikoak konpontzera bideratutako ikasketa litzateke, aurretik eskuratutako jakintza aztergaia aztertzerakoan aplikatuz. (Téllez 2007, 84)

Batzuen ustez, ikerketa bera bizi-eredu bat da. Beraz, horien ustez, ikerketa gaia aukeratzeko orduan, antropologo batek bi aukera ditu; batetik, gai konkretu batean espezializatzea eta horren inguruan aritzea bizitza osoan zehar, agenda iraunkor bat izanez. Bestetik, ordea, uneoro ikergaia alda dezake antropologoak eta bere jarduna proiektu zehatz bati eskaini beharrean, erradikalki gaia aldatzen joan daitekeela. (Téllez 2007, 84)

- Gaiaren justifikazioa

Ikerketaren proiektuan gaiaren justifikazio moduko bat egin behar da hau ikerketa zergatik eta zertarako burutuko denaren azalpen bat ematean datza. Justifikazioa ongi garatzeko arrazoi pertsonalak, disziplinarenak eta ikerketa objektuarenak artikulatu behar dira. (Téllez 2007, 84)

Aztergaia aukeratzera bultzatzen gaituen arrazoen arabera, bi motatakoak izan daitezke ikerketak: oinarrizko ikerketak eta ikerketa aplikatuak. Oinarrizko ikerketa baten helburu nagusia, gai bati buruzko ezagutza teorikoa handitzea da, erantzun zehatzik itxaron gabe. Hau da gizarte bateko fenomeno bat edo batzuen zergatia ulertzea da helburua, arazo bat konpontzea izan beharrean. Aldiz, ikerketa aplikatuen helburua, beharizan sozial bati erantzuna ematea izan ohi da, lortutako emaitzak eguneroko bizitzan erabilpen zuzena dutelako. (Téllez 2007, 84)

- Espazio fisikoa eta iker-eremua

Eremuak zehazterako orduan, bi kontzeptu agertzen zaizkigu: azterketa-unitateak eta behaketa unitateak. Behaketa unitateak definituriko aztergaia ikertuko den leku fisiko eta testuinguru soziala da, fenomeno edo prozesu zehatzak. Esate baterako, Lehen Hezkuntzako ikasleek ligatzeko dituzten ohitura eta trikimailuak aztertu nahi baditugu, jantokia izan daiteke behaketa unitate bat, jolastokia edo autobus geltoki. Azterketa unitateak, aldiz, gure ikergaia aurrera eramatean, arreta berezia eskainiko diegun faktore edo kategoriak dira, hau da, klase gatazka, genero-sistema eta abar. (Téllez 2007, 93-94)

Aukeratutako espazio fisikoak informazio emaleekin harreman ona ezartzeko egokia izan behar da, hau da, bertan bizi eta gizartean integratzeko zailtasunak ekiditen saiatu beharko gara,

hortaz, aukeratzekoan eskuragarritasuna izan beharko dugu oinarri, bai ekonomikoki bai fisikoki. Bestetik, gaia eta lekua beti estuki lotuak egon behar dira ezinbestean. (Téllez 2007, 94)

- Aurrekariak

Behin gaia ikertzerakoan izango ditugun helburuak markatuta, eremu zabala ixten joan behar gara. Horretarako, ikertu nahi dugunaren inguruan *zer, noiz, nork* eta *zenbat* esan den jakin beharko dugu, bilaketa bibliografikoaren bidez; halaber, komeni da antzeko gaien inguruko ikerketetan ere arakatzea. Gainera, hori egiteak ikerketa abiatu ahal izateko printzipio teorikoak garatzea ahalbidetuko digu. Honela, gaiaren inguruko ezagutza handitzearekin batera, hipotesia edota helburuak aldatu edo hobeto zehazteko tresnak eskuratuko ditugu. Ez hori bakarrik, denbora eta dirua aurrezteko aukera ere izango dugu honela, gure ikerketarako baliagarriak izan daitezken ikerketak erabili baititzakegu. Honekin, landa lanaren beharrik gabe datuak lortzeaz gain, gure ikerketa egiteko bertako teknikak baliagarriak izan daitezke.(Téllez 2007, 87-88)

Gainera, bibliografia anitza eta ugaria irakurtzea beharrezkoa da, baita, literatura internazionala eskuratzea eta menperatzea ere; ikerketa gaia bera berritzailea izan dadin bai mundu teoriko baita metodologikoan ere. Hau da, ekarpenen bat egitea da helburua, ikerketan zehar inolako berrikuntzarik plazaratzen ez bada, lanak bere zentzua galtzen baitu. Beraz, ahalik eta informazio gehien bildu behar da ikerketa bat burutzen hasi aurretik, landu nahi den gai konkretuaren inguruan jada sortua dagoen informazio guztia aztertuz eta materia guzti horretatik, ikerketa propioa bideratuz, alferrikako lanik burutu nahi ez bada.(Téllez 2007, 88)

Aipaturiko bilaketa egitean gomendagarria da lehenik antropologiako entziklopedietan egitea eta ondoren, bilaketa Gizarte Zientzietako beste diziplinetara zabaltzea, biek eskainiko diguten informazioa ezberdina izanen dela jakinda. “Gaiaren egoera” egiteko, komeni da erreferentzia bibliografikoen arautegia ezagutzea eta fitxero bibliografiko bat egiten jakitea. Honen luzerari dagokionean, ez da oso luzea izan behar (3-4-5 orri), dagoen bibliografiaren analisi labur bat besterik ez baita, haren analisi kritiko bat planteatu daitekeelarik. Gainera, badira gai ugariaren inguruko “gaiaren auziak”, lan orokorretan eta aldizkari espezializatuetan. (Téllez 2007, 88-89)

1.3.2.3. GAIAREN LANKETA TEORIKOA

- Hipotesiak

Hipotesiak aurretik ematen diren erantzunak dira, guk markaturiko galderen inguruko suposizioak, arazoentzako irtenbide posibleak. Hein batean, arriskatzea ekartzen du, errealtatearekin kontaktuan jarri aurretik erantzunak ematea; baina horrek ikerketa objektuari hobe heltzen lagunduko digu. Hipotesi horiek edozein iturritatik erator daitezke: datuen inguruko

irakurketetatik, esperientzia zein iritzi pertsonaletatik... Hala ere, kontuan hartu behar dugu ezin direla estatikoak izan, hau da, moldatu, aldatu edota baztertu behar direla kontraesanetan erortzean eta ezin ditugula era zurrunean ulertu, gure ikerketa determinatzeko orduan, ezin baitugu ahaztu, azken finean, hipotesiak okerrak suertatu daitezkeela. Hipotesiak mahaia gaineratzeko irudimena eta dedukzioa beharrezkoak dira eta zenbait ezaugarri izan behar dituzte: argiak eta ulergarriak; errealak; azpi-hipotesien bidez zehazteko modukoak; teoriekin loturikoak...(Téllez 2007, 90-91)

Orokorrean, lau hipotesi ezberdin aurki ditzakegu edozein ikerketetan haien ezaugarriei dagokienez. Lehenengoa, hipotesi hutsa bezala definitutakoa, aztergai diren kontzeptuen eta aldagaien artean loturarik ez dagoenean ematen da. Bigarrena, hipotesi koerlatiboak deiturikoak, kontzeptu eta aldagaien artean lotura dagoenean ematen da, harreman horri buruz ezer esaten ez badu ere. Hirugarren, norabidea erakusten duten hipotesiak leudeke, hauek aldagai eta kontzeptuen arteko harremana dagoela esateaz gain, zer nolako erlazioa duten azaltzen dute. Laugarren eta azkena, hipotesi kausalak, kontzeptu eta aldagaien arteko erlazio kausalak zehazten ditu, laueta ausartena.

- Marko teorikoa

Ikerketa proiektuaren diseinua marko teoriko baten barruan egin beharra dago, hau da, datuak jaso eta ordenatzeko logika teoriko eta kontzeptuala bat jarraituz. Horrek balio digu galdera zehatzak egiteko eta landa lanean zehar erantzun egokiak aurkitzeko. Izan ere, egitateak bakarrik teoriaren bidez uler daitezke. (Téllez 2007, 89-90)

Hala ere, kontuz ibili behar da teoria zehatz bat aztertuko dugun errealitateari mekanikoki aplikatu gabe. Gainera, oso lagungarria litzateke kontzeptu eta aldagaien operazionalizazioa egitea, hau da, hipotesian erabilitako hitz eta kontzeptuekin zer esan nahi den azaltzea eta horien erabileraren inguruko beharrezko azalpenak egitea.

- Helburuak

Ikerketa zehazki zein helbururekin egingen den zehaztean *zertarako* galderari erantzungo diogu. Normalean, helburuak, ekintzak dira: deskribatzea, aztertzea, konparatzea; gainera, planteamendu metodologiko edo diziplinar baten eskutik doaz: etnografikoki konparatzea, antropologikoki azaltzea... Honekin zehaztuko dugu zein zientziatik datorren teoria, zein motatako datuak bilatuko diren, zein ikuspegitatik egingen den ikerketa, eta abar, beste era batera, *zer* eta *nola* egin nahi den. (Téllez 2007, 86-87)

Helburuen artean, orokorrak eta zehatzak bereizi behar dira. Helburu orokorretan *zer* eta *nola* orokorrak sartzen dira eta helburu zehatzetan gaiaren azpiatalen inguruko zehaztapenak.

Helburuak zehazteko beste modu bat gai baten azpi-atalak zehazten joatea da, gai nagusia zorrotzen joateko eta ertz askotatik heltzeko. (Téllez 2007, 87)

Azkenik, garrantzitsua da ez egitea helburu zerrenda luzea, zailagoa izango baita, ikerketaren bidez denak betetzea. Hortaz, zentzuz markatu behar dira helburuak, gaiaren arlo ezberdinen artean interesgarri eta egokienak soilik aukeratuz. (Téllez 2007, 87)

1.3.2.4 GAIAREN LANKETA PRAKTIKOA

- Aurrelana

Ikerketa bateko arlo praktikoarekin hasi aurretik komenigarria da prozesu osoak izango dituen faseak xehetasunez azaltzea, bakoitzak zein helburu beteko duen, zenbat denbora hartuko duen eta zein lan molde erabiliko den argituz. Gainera, fase ezberdinak eta haien iraupen justifikatu beharko ditugu. Iraupenaren inguruan, autore batzuen arabera, gutxienez 18 hilabete iraun beharko ditu ikerketa batek modu onean egin ahal izateko. Beraz, ikerlaria etengabeko behaketa egiten egon behar da lan txukun bat plazaratu nahi badu. (Téllez 2007, 95-96)

Argi izan behar da etnologia bat egitea esperientzia subjektibo bat dela, marko geografikoaren baitan erakutsitako jarreraren arabera, baita bertako gizartearekin sortutako harreman moten arabera ere. Beraz, antropologo ona izanez gero, ikertutako subjektu sozialekin, hartu-eman etengabeko eta iraunkorraren bidez, enpatiazko sare bat eraikiko da.

Etnografiak bi zentzu ditu elkarrekintzan, batetik, aztertuko den gizartea bera aztertzeko bide zuzena dela, hauekin harremanak eraikiz. Bestetik, ordea, aipatutako harremanak, subjektiboak izaki, bai antropologoarengan baita gizartearengan ere erabateko eragina izan dezaketela. Hortaz, dikotomia horren baitan jokatu beharra du ikerketa burutuko duen pertsonak. Etnografia klasikoetan adibidez, eragin sare hori ezkututzen saiatu izan dira, baina honakoa, gaitzesgarria da eta autoritarismoaren isla bortitza gainera.

Bestetik, etapak eta haien iraupenaz gain, aurrekontua ere zehaztu beharra dago. Egongo diren gastuak zerrendatu behar dira: materiala, bidaiak, soldadak... Hau ere, nola ez, era koherentean justifikatu behar da, egingo den lana, erabiliko den materiala eta horren merkatu-prezioa kontuan hartuz. (Téllez 2007, 96)

Hortaz, komenigarria da bideorria markatzerakoan, dena ongi planteatua izatea eta etnografikoki ikerketa nondik nora joan daitekeen aurreikustea, nahiz eta rolen zein aztertuko den gizartearen eta ikerlariaren arteko lotura sozial batzuk ezingo diren aurreikusi eta beraz, lana goitik

behera aldatu ahal izango den. Baina, garrantzitsua da, komunikazio konstantea mantentzea, bai teoria, metodologia eta espero diren datuen artean. (Ferrandiz 2011, 48-49)

- Landa lana

Diseinuaren arlo praktikoan, ikerketan zehar aurrera eramango diren pausuak zehaztean, bigarren fasea landa lana da, fase enpirikoa, azter-eremuan aurrera eramaten dena eta datuak biltzean datzana. Eginkizun hori betetzen hasi aurretik, hiru lan egin beharko ditugu. Alde batetik, azterketa eginen dugun toki zehatzera iritsi ahal izateko lanak egin beharko ditugu: bertakoekin harremanetan jarri, ostatua bilatu, bisita batzuk egin, eta abar. Lekuak irisgarritasunaren, jokatu den rola eta nahi dugun informazioa jasotzeko aukeren arabera aukeratu beharra dago. Ezberdina da eremu publikoetara (parkeak, tabernak, hondartzak...) edo eremu pribatuetara (hospitalak, eskolak, kuadrillak, enpresak...) iristeko iristeko egin beharrekoa, lehenetan murgiltzea errazagoa delarik. Bestetik, rola aurreikuspena egin beharra dago. Honek esan nahi du, informatzaileek egotziko diguten rola aurreikusi behar dela, gure landa lana baldintzatuko baitu eta horren aurrean nola nahiko genukeen besteek gu ikustea. Azkenik, landa lanean zehar izan ditzakegun arazoak ere aurreikusi behar dira eta haiei aurre egiteko neurriak hartu. Arazo ohikoenetako bat, batez ere beste herrialdeetako ikerketetan, bertako hizkuntza ez ezagutzea da eta horretarako gomendagarriena hura ikustea da. Beste zenbait arazo ere atera daitezke: ikerketarako aurrekontua bukatzea, kanpoko herrialde batean egoteko baimenik ez izatea (estradizioa), bertako ezbehar politiko edo klimatikoak, gaiaren inguruan egindako planteamenduak aukeraturiko lekuan zentzurik ez izatea... (Téllez 2007, 97-99)

Landa lanaren aurreko hiru betebeharrak egin ondoren, teknika zehatzen inguruko zehaztapenak egin behar dira, datuen bilketa, ekoizpen, sailkapen eta aurkezpenerako erabiliko diren teknika ezberdinak aurkeztuz. Gainera, bakoitzak betetzen dituen helburuak eta dituzten abantailak adieraziko ditugu, haien erabilpena justifikatuz. Beraz egingo dugun ikerketaren gaiaren eta helburuen arabera egongo da baldintzatua ikerketaren diseinua. Azken finean diseinua, gure helburuak lortzeko erabiliko dugun estrategia zehaztea baita. (Téllez 2007, 99)

Esan bezala, helburuek eragin handia dute gure plangintzan, eta helburuei dagokienez hiru ikerketa mota bereizi daitezke. Alde batetik, ikerketa esploratzaileetan, helburua balizko azalpenak aurkitzea da eta ez hipotesi bat frogatu edo deuseztatzea. Zer aurkituko dugun alde aurretik jakitea zaila gertatzen denez, galdera ireki eta orokorrak planteatuko dira eta horretarako metodo emankorrenak behaketak, eztabaida-taldeak eta sakoneko elkarrizketak dira. Beste alde batetik, ikerketa deskribatzaileetan, fenomeno baten arlo desberdinen ezagupen zehatza egitea da helburua, formulatutako hipotesiak frogatzeko gerora. Kasu honetan, ikerketaren helburua argiagoa denez, ikerketa diseinu landuagoak erabiltzen dira, eta honetarako inkestak eta ondo zehaztutako behaketak dira egokienak. Azkenik, ikerketa esplikatzaileetan, hipotesi kausalak frogatu nahi dira. Honetarako

teoria sendoak eta diseinu oso sofistikatuak behar dira. Beraz, teknika erabilgarrienak inkestak eta saioak dira.

Baina ez hori bakarrik, informazioa lortzeko dauden muga praktikoek zehaztuko dute ere, hein handi batean, ikerketaren diseinua. Esate baterako, ikertzeko modu batzuk etikarik gabekoak izan daiteke: baimenik gabe norbait grabatzea esaterako. Horrelakoak ekidin behar dira ahal den neurrian, etikoki gaizki egoteaz gain, legediarekin ere arazoak eduki ditzakegulako ikertutako pertsona ohartzen bada. Gainera kontuan eduki behar dugu ikertzaileak ikertuen gain eduki dezakeen eragina, eta ahal den heinean minimizatu. Esate baterako, ezin zaio elkarrizketatuari erantzuna bideratu.

Azkenik, ikerketa egiteko dugun denbora eta diruak baldintzatuko du gure diseinua. Lagin handi bati egindako inkesta pertsonalak, inkesta telefonikoak edo posta bidez egindakoak garestiak dira eta denbora asko behar da haiek burutzeko. Aldiz eztabaida taldeak eta bizitza historiak ez dira hain garestiak, denbora asko behar badute ere. Behatzaile batek denbora asko beharko du behaketa egiteko eta aldi berean, behatzaile askok denbora gutxiago beharko dute baina garestiago aterako da.

Ikuspuntu guzti hauek kontuan hartzen ez baditugu, errore sistematikoak egingo ditugu eta baliorik gabeko ikerketa bat burutzeko arriskua jasango dugu.

- Datuen analisisa eta sailkapena

Hirugarren lana, jasotako datu eta informazioaren azterketa eta sailkapena da. Hau landa lana aurrera doan bitartean egiten joan daiteke edo amaierarako utz daiteke, behin azter-eremutik alde eginda. (Téllez 2007, 101)

1.3.2.5. ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

Azkenik, diseinu orotan, hura egiteko erabili dugun bibliografia aurkeztu beharra dago. Gaiaren egoera ondorioztatzeko, gure hipotesiak gidatzeko eta abarretarako erabili duguna argi adierazi behar da. Ez bada, ezer aurkitu komeni da kontsulta transbertsalak egitea, hau da, ikertuko den gaiaz haratago joatea.

Bilketa bibliografikoa ongi adierazteko, erreferentzia bibliografikoen, fitxeroen eta orrialde azpiko oharren inguruan komunitate zientifikoan dauden arauak ezagutu beharra dago. Antropologian, eta Gizarte Zientzietan, oro har, Chicago estiloa da erabiltzen dena. (Téllez 2007, 102)

1.4. ONDORIOA

Laburbilduz eta ondorio bezala, lan honetan zehar argi ikusi da zein garrantzitsua den, ikerketa bat egin aurretik batez ere, honen plangintza eta diseinu egoki bat egitea. Diseinua ez da mugatzen, hipotesia formulatu eta hori frogatzeko erabiliko diren teknikak definitzea. Hipotesia formulatu aurretik, ikertu beharreko gaia aukeratu beharra dago, honek ezartzen dituen muga guztiekin, eta ez hori bakarrik, gaiaren inguruko bibliografia arakatzea ezinbestekoa da auziaren egoera ezagutzeko.

Behin hori eginda, hipotesia formulatzeko aukera izango dugu. Honek malgua izan behar du “a priorizko” zerbait baita, eta faltsutua izan baitaiteke. Marko teorikoak eta gure ikerketaren helburuak izango dira azkenik gure diseinua baldintzatuko duten faktoreak, hauen arabera erabakiko baitira erabiliko diren ikerketa metodoak. Beraz, arestian aipatu, ikerketa batean egin beharreko aurrelana landan egin beharrekoa baino gehiago izan daitekeela ia.

1.5. DENBORA PASA

Bilatu azaldutako gaiarekin lotura duten hamaika hitz:

W	U	W	A	L	A	A	N	D	O	M	U	E	F	B	V
A	E	D	Y	Q	T	H	Z	E	A	A	S	S	A	I	C
D	I	S	E	I	N	U	A	I	W	R	J	P	Z	B	Q
Z	Z	E	W	F	I	L	U	R	K	K	U	E	T	L	P
I	R	R	Y	M	F	H	S	O	P	O	S	Z	E	I	U
E	H	I	P	O	T	E	S	I	A	Q	T	I	R	O	B
A	L	D	A	G	A	I	A	S	F	T	I	A	G	G	U
H	K	E	Q	G	I	A	O	Z	E	E	F	L	A	R	K
C	I	P	U	R	R	C	E	M	E	O	I	I	I	A	B
T	I	I	C	H	I	C	A	G	O	R	K	Z	A	F	G
U	A	A	P	X	E	O	G	T	A	I	A	A	M	I	A
V	J	N	E	S	T	E	G	T	H	K	Z	Z	U	A	H
B	I	D	E	O	R	R	I	A	P	O	I	I	X	Q	E
U	S	E	M	G	U	P	I	U	Y	A	O	O	A	Y	U
T	K	A	U	U	P	Q	U	U	A	Z	A	P	Q	E	I
N	S	W	P	M	A	L	G	U	T	A	S	U	N	A	D

2. METODOLOGIA

2.1. ZALANTZA ARRUNTAK

1. Zertarako balio du metodologiak? Eta zergatik da honakoa horren garrantzitsua?
2. Zein metodologia mota daude? Eta noiz erabili behar da bakoitza?
3. Zer da diziplinartekotasuna?
4. Zer da holismoa? Zertan datza?
5. Zein hiru printzipio ditu prozesu etnografiko batek?
6. Teknika bakarra erabili behar dut ikerketarako? Edo gehiago?
7. Teknika kuantitatiboak erabil daitezke? Nola?
8. Teknika bakoitza helburu batera bideratua dago edo moldatu daitezke?

2.2. SARRERA

Honako atalean, ikerketa proiektu bat aurrera eramateko beharrezko diren metodologiaren azalpena burutuko dugu, baita honakoen behararen inguruko hausnarketa ere. Jakina da, ikerketa antropologiko bat aurrera eraman ahal izateko, aztertu nahi den egoera edota gertaera beraren analisia ezinbestekoa dela eta horretarako, zenbait era edo metodo ezberdin erabil daitezke, egoerak eskatzen duenaren arabera bata edo bestea erabiliz.

Hala ere, atal honetan, metodo desberdinen existentzia aipatzeaz gain, horiek zein kasutan eta nola erabili beharko liratekeen ere azalduko dugu, lana zentzuz eta era ahalik eta onenean burutu ahal izateko.

Jarraian garatuko dugun lana burutu ahal izateko, hainbat adituren testuetan oinarritu gara, besteak beste, Maria Isabel Jociles Rubioren eta Arkaitz Zarraga, Jean-Baptiste Coyos, Jone M. Hernández, Lionel Joly, Imanol Larrea, Loren V. Martínez, Belen Uranga eta Paul Bilbaoren *Soziolinguistika eskuliburuan* lanetan, metodologiaren inguruan idatzitako hausnarketak kontuan hartuz.

2.3. AZALPENA

2.3.1. METODOLOGIAREN BEHARRA

Ikerketaren izaera eta helburuak erabiliko dugun metodologia zehaztuko du, eta honek ikerketaren norabidea definituko du; ikerlanak izango dituen ezaugarriak, proposatuko dituen galdera-motak, helburuak eta abar zehaztuko dira. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 287-288)

Edozein gertakari edota arazoren inguruko ikerketa egiteko, beharrezkoa da galdera bera nola formulatu jakitea, hau da, edozein metodologiatan pentsatzen hasi aurretik, ikerketa proiektua beraren hasiera izango den galdera zehaztea ezinbestekoa da, aurreko atalean azpimarratu izan dugun bezala. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 287)

Hala, honakoa zehaztuta, galdera horren arabera, metodologia zehatz bat (edo hainbat) aplikatzea beharrezkoa da, eta garrantzitsua da honakoa egokia izatea, metodologiak zehaztuko baitu ikerketa beraren norabidea eta baita emaitza bera ere. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 289)

Adituek diote, beharrezkoa dela metodologiaren inguruan etengabeko eztabaida ematea, geroz eta ezagutza gehiago izan esparru honetan, orduan eta aukera gehiago izango baititugu baliagarriena dena aukeratzeko. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 288)

Gizarte zientzietan, metodologia motak zehazterakoan, kualitatiboa eta kuantitatiboa ezberdindu daitezke, tradizionalki. Hala ere, egun hirugarren bat bereizten dute batzuek bi horietatik, kritiko edota parte hartzaile bezala ezaguna dena. Honakoa, tarteko metodologia motak multzokatzeko izango litzateke, hau da, kualitatibo zein kuantitatibo diren metodoetatik edan dezaketenak. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 288)

2.3.2. METODOLOGIA NAGUSIAK ETA TEKNIKA EZBERDINAK

Lehenago esan bezala, gizarte zientzietan, tradizionalki metodologia guztia bi talde ezberdinetan sailkatu izan da, nahiz eta honako banaketari egun, hirugarren bat gehitzen zaion, sailkapen osatuago bat eskeiniz. Hala ere, klasifikazio honek ezin dizkio atek itxi bata zein besteari ikerketa bat aurrera eramaten ari garen bitartean, biak (edota hiruak) erabilgarri zein uztargarriak baitira. Kontuan hartuz ikerketek fase ezberdinak dituztela, posible izango da hasieran metodo mota bat erabiltzea eta geroago beste bat. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 290-291)

Metodologia kuantitatiboa, ikerketa esploratzaile bat egin nahi denean, hau da, argazki orokor bat atera nahi denean erabiltzen da. Fenomeno baten hedapena edota gertakari baten aurrean egon daitezkeen oinarrizko jarrerak ezagutu ahal izateko, eta azken horien inguruko diskurtso ezberdinak denboran zehar nola aldatzen diren ikusi ahal izateko, adibidez. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 294)

Metodologia kualitatiberrinak sakontasunez ezagutu ahal izateko erabili ohi da. Pertsonak eduki ditzaketan esperientziak, bizipenak eta pertzepzioak sakontasunez ezagutzeko edota gai baten konponbidea bilatzeko garaiantiboa, aldiz, gertakari baten aurrean egon daitezkeen ikuspuntu, jarrera eta iritzi e, proposamen eta ideia ezberdinak jasotzeko, adibidez. Baita, gertakari edo gai baten garapenean sakontzeko ere. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 294)

Jarraian, hainbat teknika desberdin aipatuko ditugu eta honakoetan apur bat sakontzeko ahalegina egingo dugu. Hala ere, kontuan hartu behar da, hauez gain, beste hain beste izan badirela.

2.3.2.1. INKESTA/GALDETEGIA

Honakoa, metodo kuantitatiboan barruan kokatuko genuke, talde horretako adierazgarriena izanez, baita nagusia ere. Honakoaren bidez, aztergai den populazioaren lagin bati ikertzaileak proposatutako galdera batzuei erantzuteko eskatzen zaio. Jasotako erantzun guztien kontaketa eta erregistroa egin ondoren, analisia egin behar da. Hala, elkarrizketatzailea eta elkarrizketatuaren arteko hitz-jardueran oinarrituta dago metodo hau. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 298)

Inkesta bat aurrera eramanez ahal izateko, galderak prestatzea izango da funtsezkoena. Horretarako, helburuak, hipotesiak eta gaiari buruzko teoriak ezagutzea beharrezkoa izango da. Bestetik, erantzunak jasotzeko, hiru teknika desberdin erabili ahal izango dira; aurreko inkestak, posta bidezko inkestak eta inkesta telefonikoak. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 300-301)

Galderen idazketa ere azpimarratu beharreko aspektua da. Hasteko honakoen ordena garrantzitsua da, horrek erantzutean eragina izan dezakeelako. Beraz, komenigarria izango da galderak era logiko, koherente eta erakargarrian aurkeztea. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 300)

2.3.2.2. ELKARRIZKETA SAKONA

Metodo kualitatiboaren baitan kokatzen den teknika da eta gizarte-zientzietako hainbat diziplinatan oso hedatuta dago, bereziki antropologian baina baita soziologian ere. Honakoa, bi subjektuen arteko aurreko interakzioa da, bata ikertzailea eta bestea elkarrizketatua. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 302)

Ezinbestekoa da elkarrizketetan etxekotasuna eta lagunarteko harremana, hau da, konfiantzazko harremana sortzea. Elkarrizketatua lasai eta motibatua egotea funtsezkoa da, eta horretan saiatu behar du elkarrizketatzaileak. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 303)

Aipatutako testuinguru lasai hori lortu ahal izateko, elkarrizketatuak, ikerketaren inguruko informazioa eduki behar du, beharrezkoa da, minimoki, ikerkuntza nondik norakoa izango den

jakitea. Bestetik, ikertzailea, elkarrizketatuaren beharretara moldatuko da, ezarritako egun, ordu eta tokira egokituz. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 303)

Gidoia funtsezko tresna izango da elkarrizketa sakonetan eta honakoan, landuko diren gaiak eta galderak egiteko modua zein ordena oso garrantzitsuak izango dira, elkarrizketatua eroso sentitu dadin eta metodo honen bidez, ahalik eta informazio gehien atera dezagun. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 304)

2.3.2.3. BIZITZA-HISTORIA

Honako teknikarekin, banakako esperientzia berezia ezagutzea bilatzen da, hau da, pertsona baten definizioa bizi izan duen egoera bati buruz edota bere bizitza osoari buruzkoa. Kasu honetan ez da “egia” bilatzen, baizik eta subjektuak bere egia nola eraikitzen duen aztertzea. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 305)

Bizitza-historian zehar, beraz, elkarrizketatuaren bizitzako etapak, gertaerak edo momentu garrantzitsuak jasotzen dira. Gehienetan, informazioaren iturri bakarra elkarrizketatua izango da, baina, beste batzuetan, tokietara egindako bisitak, argazkiak, eskutitzak eta senitartekoei egindako elkarrizketak erabiliz material gisa. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 305)

Metodologia mota hau aurrera eramateko, argi izan behar da, informazio-mota guztiak oso bereziak izango direla, eta bizipen eta sentimendu ugari emango direla bertan. Beraz, beti konfiantzazko giro bat sortu beharra dago eta honakoa, gauza guztien gainetik jarri beharko da, ezaugarri hau gabe ezingo da bizitza-historia bat burutu. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 306)

Bizitza-historia bat egiterakoan, hainbat arlo aztertu behar dira. Batetik, ikertzen ari den pertsonaren bizitzaren oinarriko dimentsioak eta beraz, pertsona hori bere testuinguru zehatzaren baitan ulertzea. Bestetik, pertsona horrek bere bizitzan dituen inflexio-puntuak eta gertaera garrantzitsuak ezagutu eta aztertzea. Azkenik, bizitzan zehar, aldaketen aurrean hartutako erabakiak aztertzea. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 307)

2.3.2.4. EZTABAIDA-TALDEA

Honako metodologia erabiltzen bada, galderak pertsona bati egin beharrean, talde bati egiten zaizkio. Honen helburua gai edo gertakari baten inguruan dauden iritzi, ikuspuntu zein pentsaera desberdinak ezagutzeko talde-eztabaida sortzea da. Hala, gizartean dauden gaien edota gertakarien inguruko diskurtso ezberdinak azalerratu ahal izango dira. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 307-308)

Eztabaida-taldearen moderatzailea eta honetara gonbidatutako kideak izango dira protagonistak. Beraz, kontuan hartu beharra dago, diskurtsoek bi norabide izango dituztela; alde batetik, moderatzailea eta taldekideen arteko harremana eta bestetik, taldekideen artean emango den eztabaida. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 308)

Moderatzailearen lana, taldekideen artean eztabaida eta iritzien trukaketa ahalbidetuko duen giroa sortzea izango da. Horretarako, eztabaida ongi antolatu behar da, gaiak gidoi egoki batean bilduz. Gainera, komenigarria izango da gidoian azaltzen diren gai guztiak jorratzea baina argi izan behar da, inolaz ere ezin dela zurrunki aplikatu honakoa. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 308)

Talde hauei dagozkien ezaugarrietan sartuz, egokiena, zortzi kidekoak izatea da eta honakoen arteko harremanak simetrikoak izan behar dira, hau da, ez baztertzailak izan beharko dira. Bestetik, taldekide guztien ezaugarriak antzekoak izatea, homogeneoak baina heterogenotasun puntu batekin. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 309)

Normalean, bi orduko iraupena izaten dute bilkura hauek eta tokia ongi aukeratu behar izaten da, leku atsegin eta neutroa izan dadin. Taldea bestetik, pertsona bakarrak dinamizatuko du, laguntzaile bat izateko aukerarekin eta bi hauek ezingo dute euren iritzia bota inola ere ez. Azkenik, azpimarratu behar da, dinamikaren hasiera eta bukaera, bereziki zaindu beharreko uneak direla, taldeari harrera ona eman ahal izateko eta sentazio onarekin gera daitezen bukatutakoan. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 309-310)

2.3.2.5. BEHAKETA ZUZENA

Gizakien portaera begiratzea eta aztertzea du helburu, betiere modu sistematiko eta kontrolatuan eta inongo manipulazio eta bitartekorik gabe. Bestelako tekniketan ez bezala, honakoan ez da estimulu berezien eragina jasotzen. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 310)

Behaketak gizarte-antropologiarekin du harreman zuzena, historikoki diziplina horretan kokatu izan da. Hala, antropologoek garatu izan dute bereziki teknika hau, gehienetan etnografiaren lanketari lotuta. Behaketak, ikertzaileari ikertzen ari den giza-taldean txertatzea eta inplikatzeari eskatzen dio. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 311)

Honako metodologia erabiltzerakoan, oso garrantzitsua da notak hartzea eta behatutako guztiaren berri ematea. Bestetik, ezinbestekoa suertatzen da ikertuen aurrean bere burua behar bezala kokatzea, ikertzailearen eta behatuen arteko harremana era egokian gauzatu ahal izateko. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 312-313)

2.3.2.6. BESTELAKO INFORMAZIOA/MATERIALA

Iturri ez zuzenen bidez informazio baliagarria eskuratzeko moduak ere egon badira. Horretarako, beste pertsona batzuk, bildu, sortu edota gorde dituzten estatistika, dokumentu, grabaketa eta material pertsonalen azterketa hartzen du oinarritzat. Beraz, aurrez sortutako materialarekin egiten du lan. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 313-314)

Askotan, iturri ez-zuzenen erabilerak beste teknika batzuen bitartez lortutako datuak osatzen laguntzen du, baina batzuetan bide bakarra ere izan daiteke. Hala, material horren kalitatea eta zuzentasuna ziurtatzea merezi du, ikertzailearentzat iturri nagusia izango baita. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 314)

Aztertuko den material mota anitza izan daiteke baina Juaristik, honakoak sailkatzeko modu erraz bat proposatzen du:

- Dokumentu idatziak
- Zenbakiak eta estatistikak
- Aurreko bi kategoriatan sartzen ez diren dokumentu edo materialak

Sarritan halako dokumentuak bilatzeko arazoak egoten dira, arlo pribatukoak direnean batik bat. Beraz, honako materiala eskuratu ahal izateko, oso egokiak izan ohi dira erakunde ofizialek eskeintzen dituzten informazio-guneak. (Zarraga eta beste batzuk 2010, 314)

2.3.3. TEKNIKEI BURUZ

- Aniztasuna

Antropologian, eta zehazki etnografian, teknika ugari erabiltzen dira eta gainera, antzeko helburuak betetzeko edo ikergai berdinari aurre egiteko erabiltzen dira. Hala ere, ikusi dugun bezala, teknika bakoitza estrategia metodologiko bat da eta hainbat dira bat edo beste aukeratzeko faktoreak: ikergaiaren nolakotasuna, harekiko aurrez daukagun ezagutza, ikergaia barnebiltzen duen biztanleriaren ezaugarriak, ikerketari eman nahi zaion irismen teorikoa... Zentzu horretan oso malgua da azpidiziplina hau, eta ez dakartza, bortxaz, posizionamendu teoriko eta metodologikoak. (Jociles 1995, 11)

Ikerketa etnografikoaren aniztasun horrek, noski, baditu bere alde txarrak, baina batez ere, abantailak dauzka. Izan ere, gizarte prozesuak ikerketarako espreski prestatutako egoeretan ikertzeaz gain, egunerokotasuneko kontestu batean ikertzea ahalbidetzen du. Gainera, ikerketa batean ateratako ondorioak teknika zehatzen izaeraren menpeko bihurtzeko arriskua asko murrizten da erabilitako teknikak ugariak badira. Bide horretan etnografiak errealitatea ahal bezain bat

alderditatik ikertu nahi du eta hor paper garrantzitsua jokatzen du behaketa parte hartzaileak, teknika bat izan arren, beste askorekin uztartzeko aukera ematen baitu. (Jociles 1995, 11)

Teknikak ikerketako helburuak betetzeko diseinaturiko egoerak dira eta beraz, horietako bakoitzak emaitza ezberdina ekarriko dute. Gainera, kontuan hartu behar da subjektu sozialak, pertsonak, etengabe ari direla bizitzen dituzten egoera ezberdinetako portaerak definitzen eta horrek ere ezberdintzen du teknika bat bestearengandik. Hori dela eta, triangulazioaren, hau da, gutxienez hiru teknika ezberdin erabiltzearen aldeko apustua nahiko kontsentsuatua dago antropologiaren baitan. (Jociles 1995, 12)

Horretaz gain, tekniken aniztasun horretan kuantitatiboari ere lekua egin zaio 70. hamarkadatik aurrera, hemen jorratuko ez ditugun zenbait arrazoi direla eta. Horiek ahalbidetzen dute aztertutako fenomenoaren irismen eta banaketa numerikoa neurtzea. Hortaz, ez dira inolaz ere itsu-itsuan baztertu beharreko teknikak eta gure azterketetan hala edo nola. Zentzu horretan badira teknika tradizionalak (behaketa parte hartzailea barne) helburu kuantitatiboekin jorratzeko saiakerak, Clyde Mitchellek (1969) sareen metodoarekin eta Juan Gamellak (1993) behaketa parte-hartzailearekin egin bezala. (Jociles 1995, 13)

Orain dela gutxira arte, antropologoaren artean, bere horretan duten hutsuneak direla eta, teknika kuantitatiboenganako ukapen moduko bat egon den arren, ez dituzte baztertzen, errealitatearen beste alor bat baita kopuru eta zenbakiena. Hala ere, gehienetan konbinatuta erabiltzeko joera dago. Izan ere, zenbakiak eta diskurtsoak ez dira bi paradigma berezitu, zaila da bietako bide bakarra erabiltzea eta gainera, etnografian ahal bezain beste ikuspegitatik ikertu nahi bada, komenigarria da biei lekua egitea. Egonaldi luze eta zuzenek gainera, horretarako baldintza oso egokiak eskaintzen dituzte. Zailtasun asko dituzte, noski, baina handiagoak dira bere abantailak. (Jociles 1995, 14-15)

- Diziplinartekotasuna

Egun, oso zaila da teknika bat edota teknika jakinen multzo bat diziplina bat edo besteri atxikitzea. Egia da eztabaida taldeak eta inkesta estatistikoak soziologiarekin lotzen ditugula, elkarrizketa sakona psikologiarekin eta behaketa parte hartzailea antropologiarekin, teknika jakin horiek diziplina jakin batean gehiago erabiliak izan direlako gainontzekoetan baino. Tekniken mugen iragazkortasunak ikerketa tekniken aldaketari eragiten dio, hala nola biografia, sareen analisia edota lehen aipatutakoak. Urteetako lanei begiratzen badiogu esan genezake ikerketa teknikak bi diziplinen arteko ezberdintasun eremua izan ordez kointzidentziarena izango litzatekeela. Honakoa Juan Jose Pujadas (1992:85), Felix Requena (1991) eta Juan Jose Castillok (1997:145) baieztatzen dute. (Jociles 1995, 1-2)

Hala ere, nahiz eta diziplina ezberdinen teknikak hartu, askotan ez dira haren arauak betetzen, hala nola, baliteke eskola soziologiko batek eztabaida taldeen inguruko hainbat arau ezartzea, nahiz eta teknika hori hautatu ez litzateke beharrezkoa diziplina propioak ezartzen dituen baldintzak betetzea. Esate baterako, behaketa parte hartzailea zoologoen behaketa naturalistaren transplante gisa sartu zen antropologian. Antropologia dago eta beti egon da mundu guztiei irekia, gizarte zientziei zein natur zientziei, bai pentsamendu zientifikoak bai humanistak eragin handia izan baitute harengan. (Jociles 1995, 3)

Askotan diziplinartekotasuna ez da onartua izan eta isilarazia edota minimizatu izan da. Onartu ala ez ageriko errealitatea da eta aitortzea eskatzen du, ez delako diziplina baten eremu pribatuaren produktua, baizik eta denboran zehar gizarte zientziek egindako ekarpenena. Baina hau onartzeak antropologoei hainbat zalantza sortzen dizkie; non dago ba ikerketa antropologikoaren originaltasuna? zertan ezberdintzen da ikerketa soziologiko bat ikerketa antropologiko batetik? (Jociles 1995, 3-4)

Antropologiaren berezitasuna, "begirada antropologikoa" eta "ikerketa objektuari heltzeko era" osatzen dute.

2.3.4. "BEGIRADA ANTROPOLOGIKOA"

Badago gizarte primitiboetan identitate antropologikoa bilatzen jarraitzen duen jendea, ez al da egia antropologiaren espezifikotasuna, edozein zientziarena bezala, ikerketa objektuan duela sustraia? Bai noski, baina horrek ez du esan nahi, lehenenik, objektuak landarekin bat egitea, eta bigarrenik, hau errealitatean "emanda" izan den entitate batekin nahasia izatea. (Jociles 1995, 4)

Leslie Whitek mahai gainean jarri zuen hurrengoa: "Ikerketa objektua galdera multzo esanguratsu batengatik osatua dago, zeinek hau fenomeno soziokultural batengana zuzentzen duen, multzo honek behagarria eta beha ezinaren eremuak mugatzen ditu, beti ikuspegi teoriko zehatz batetik egiten dena, antropologoek 'kultura' gisa parekatu duguna." (1975 (1959), 129 in Jociles 1995, 4)

Baieztape hau kolokan jarri zuen ondoren Alfred Radcliffe-Brownek, kultura abstrakzio bat baino besterik ez zela esanez. Whitek ordea ez du bata ez bestea onartzen, bere ustetan (baita Tylorren ustetan ere) kultura ikasia eta sozialki transmititu den jokabidea da. Whitek sustantzialismoa azpimarratzen du, ikertutako fenomeno soziokulturalen identitate autonomoa baita, hauek ikuspegi ezberdinetatik aztertutako izan daitezkeelarik; Whitek ikuspegi hauei testuinguru hitza atxikitzen die, Hammersley eta Atkinsonen [1994 (1983): 57] esanetan hauek 'angelu teoriko espezifikoak' dira, beste batzuentzat ere, ikuspuntu edota begiradak izan daitezke. (Jociles 1995, 5)

Analisi kuantitatiboa denon eskuetan dagoenez, soziologoek ezingo dute haren eskusibotasuna aldarrikatzen jarraitu. Berez, espezifikotasuna adierazten duena parte hartzaileen begirada da, prozesu hezigarri zehatz eta luze batean zehar osatua. Anthony Wildenek, (1979:112) garapen metodologiko guztietan bi osagai bereizten ditu, batetik 'puntuazioa'; operazio primarioa litzateke, zeinetan behatzaileak sistema bat mugatzen duen, eta bestetik 'sintaxia'; sistema baten artikulazio logikoko moduak lirateke, bigarren mailako operazioen bidez ezagutuak izan daitezkeenak. (Jociles 1995, 5)

Lehen esan bezala ikerketa bat antropologiko gisa onartzea baimentzen duena ez da prozedura, landa, teknika bat edo batzuk, baizik eta hauen erabilpenak, honek osatzen baitu haren 'begirada' antropologikoa, zeinek egoera etnografiko batean kokatzen ditu besteak. Honekin ez dira ikerketaren tekniken garrantzia gutxien, baizik eta 'begirada'-ren ezaugarria berreskuratzen da. (Jociles 1995, 6)

Ikerketa baten prozesuaren kalitatea hortaz, 'begiradan' datza, eta honek konfirmatzen du ikerketaren lehenengo tresna ikerlari propioa dela, honen harira haren formakuntza akademikoa edota praktikak garrantzi handia bereganatzen dute. Pierre Bordieu-ren esanetan, 'begirada' antropologikoa hainbat pertzepzio printzipioek osatzen dute, baita ikerketaren subjektu propioaren ekintza eta sentimenduek ere. (Jociles 1995, 6)

Kathleen Wilcoxe 'begirada' antropologiko hau eskuratzeko hiru fase edota printzipio zerrendatzen ditu; lehenengoa, aurreiritziak baztertzea; bigarrena, familiarra dena ezezagunean bihurtzea saiatzea; eta hirugarrena, gauzen gertaeren zergatia ulertzeko eremua eta testuinguruaren arteko harremanak aztertzea. Hala ere esan beharra dago printzipio hauek kritikatuak edota zalantzan jarriak izan direla, autore ezberdinek haren egoerara egokitu baitituzte. (Jociles 1995, 6)

Hiru printzipio hauek bai gizarte tradizional bai gizarte konplexuen ikerketetan izan daitezke erabiliak, zuzenki kontzeptualizatzen badira, edozein ikerketaren egoera ezberdinei atxiki ahal zaizkio, antropologiari lorpen garrantzitsuak eskainiz. Lehenengoak holismoari erreferentzia egiten dio, hau ikerketa objektuaren inguruko espazio eta denboratik kanporako pauso bat ematean datza. Holismoa beste egile batzuek kritikatuak izan da (adib; Lucy Mair), eta beste batzuek goraipatuak (Velasco, Garcia Castaño eta Diaz de Rada 1993:316) "hau baitago presente etnografia onenetan". (Jociles 1995, 8)

2.4. ONDORIOA

Honako atalean ikusi bezala, ikerketa proiektu bat egoki aurrera eraman ahal izateko, ikertu nahi den gizaratean presente dagoen gertaera edota gai konkretua aztertzerakoan beharrezkoa da materiala biltzea eta horren inguruko analisi zintzo eta garbi bat burutzea.

Aipatutako datuen biltzea egiteko, ezinbestekoa da metodologia ezberdina erabiltzea eta horretarako, honen inguruko ezagutza beharrezkoa da. Hala, geroz eta ezagutza handiagoa izan gai honen inguruan, ikerkuntza bera geroz eta zintzoagoa izango da eta beraz, emaitza osoagoa izango da.

Honakoa esanda, azpimarratu beharra dago, askotariko metodologia dugula antropologoen esku artean baina honakoa sailkatzen eta erabilera egokia ematen jakitea da oinarritzkoena. Beraz, ikerketaren arabera, teknika bat edo bestea erabiliko da, informazio mamitsuena eduki dezagun eta emaitza hutsunerik gabekoa izan dadin.

2.5. DENBORA PASA

Bila itzazu gai honekin loturiko 9 hitz hizki zopa honetan:

U	Y	O	E	Z	O	B	S	Z	E	I	G	N	U
P	F	C	L	G	Y	E	E	I	Y	B	P	D	E
M	E	T	O	D	O	L	O	G	I	A	S	I	J
T	R	I	A	N	G	U	L	A	Z	I	O	A	O
B	E	G	I	R	A	D	A	H	D	P	Y	R	Y
K	U	A	L	I	T	A	T	I	B	O	A	D	Q
U	E	Z	O	E	E	K	G	O	I	W	U	A	C
T	C	U	K	A	X	I	U	A	U	M	K	A	A
I	C	L	E	O	R	X	E	E	O	L	Q	L	U
K	O	H	E	R	E	N	T	Z	I	A	K	V	R
H	O	L	I	S	M	O	A	B	G	V	L	X	O
K	U	A	N	T	I	T	A	T	I	B	O	A	V
A	N	I	Z	T	A	S	U	N	A	M	H	F	S
L	A	G	I	N	A	H	U	X	F	A	K	O	Y

3. ETNOGRAFIAREN GARAPEN HISTORIKOA

3.1. ZALANTZA ARRUNTAK

1. Historian zehar etnografia beti ikuspuntu berdinarekin egin izan da?
2. Zein mende edo garaian sortu zen lehenengo etnografia?
3. Zeintzuk dira etnografo esanguratsuenak?
4. Noiz sortu zen antropologia modu formal edota akademiko batean?
5. Nor da "Bureau"ren zuzendaria eta zein ekarpen egin zion antropologiari?
6. Nor hartzen da antropologia medikuaren aitzandaritzat?
7. Zeren aitzindari da Margaret Mead?

3.2. SARRERA

Etnografiaren garapen historikoan sartu aurretik, ezinbestekoa da jakitea, zergatik den horren garrantzitsua alor honetan sakontzea. Lehenik eta behin, argi izan behar dugu, etnografia hitzak bi esanahi desberdin dituela bere baitan, batetik, prozesua bera izenpetzen du honako terminoak eta bestetik, prozesu horren baitako produktua, hau da, prozesu luze horretan lortutako datuen analisi eta interpretazioaren emaitza da baita ere etnografia.

Antropologia, gizarte zientzia integratzailea da, arazo soziokultural zein historikoekiko kezka du eta honakoak konpondu ahal izateko tresna nagusia da. Gainera, datuak jasotzerako orduan eskaintzen duen zehaztasuna medio, kultura zein gizarteekiko teoria ezberdinak eraikitzea ahalbidetzen du.

Hala, etnografiak, testuinguratzearekin eta konparaketarekin batera, triangulu antropologikoa eraikitzen du, honako bakoitza forma geometrikoaren punta banatan egokiturik. Ezin dugu inolaz ere argudiatu, etnografia egitea datu bilketa soil eta ero bat denik. Honakoak, jasotako datuen interpretazioa zein lehenago eginiko azterketen birformulazioak eskatzen ditu. Hortaz, kezka berriak sortuko ditu ikerketak eta honakoak ikerketa berrien beharra izango dute etorkizun batean.

Beraz, testuinguratze integral baten beharra du beti lan antropologiko batek, bereziki historikoa baina baita demografiko, politiko zein ekonomikoa ere. Beraz, gizakia jomuga duten zientzia ezberdinak barnebiltzen dituen arloa da antropologia.

3.3. AZALPENA

Etnografia deskribapen kulturalak, talde baten azterketa intentsiboa, objektutzat duen diziplina bat da, hots, giza talde baten ulertze prozesu orokorra. Beste aldetik, antropologiak gure kultura posibleen artean bakarra dela azpimarratzen du, eta sinesmen absolutu eta unibertsalen inguruko zalantzak planteatzen ditu. (Catedra 1989, 1)

Etnografiaren kontzeptua nahiko anbigua dugu, prozesua eta produktua baita aldi berean. Etnografiak prozesu gisa landa lanaren arazo fenomenologikoak sumatzeko eta ezagutzeko moduen sustraiekin aurrez aurre jartzen gaitu. Berez etnografia eztabaida teorikorako informazioa biltzeko baino bitarteko bat ez da. (Catedra 1989, 1)

Beste alde batetik, etnologia beste kultura batzuen errealitatearen pertzepzio mendebaldarretik abiatzen da bere hastapenetan, pertzepzio hau muga bat delarik, haren beharrak oso zehatzak zirelarik; bilakatzea eta gobernatzea. Baina XIX. mendean bestelako ikerlariak agertzen dira; naturalistak, bidaiariak edota museotako kolekzionistak. Mende honetan museo etnologikoak eta sozietate antropologikoak sortzen dira, kultura materialaren deskribapenean haien interesa kokatzen dutelarik. (Catedra 1989, 2)

XX.mendean ordea ikerketa etnografikoaren birplanteamendu bat egiten da, behaketa parte hartzailean kokatuz begirunea; landa lanean etnografoa behatzen duenaren parte izatera heltzen da eta mundu ezberdinen esanahien topaketa bat sortzen du, hortaz, bere lana egiterakoan komunikazioa beharrezkoa du. Etnografoa kultura ezberdinen estrukturen itzultzaile gisa har daiteke. (Catedra 1989, 3)

Historian zehar antropologiaren izaera soziologoarenarekin izan da nahastua, baina lehengoak esentzia induktiboa dauka eta bigarrenak ordea deduktiboa. Esentzia hau informatzaileekin dituzten harremanetan datza, soziologoek harremanak motzak eta espezifikokoak diren heinean, antropologoek luzeak eta zehaztugabeak dira. (Catedra 1989, 7)

Etnografoa landa laneko eremura iristean natibo marginala da eta apurka taldeko kideekiko sortutako urruntasuna gutxitzen doa informazio esanguratsua lortzeko asmoarekin. Antropologoa goiz hasten da hipotesi eta behaketaren arteko dialektikan, datuak jasotzen doan bitartean hipotesi berriak birplanteatu behar baititu. (Catedra 1989, 7)

Indigenen portaera (ekintzak) eta ideologiaren informazioa jaso behar da, horretarako elkarrizketa etnografiko informala sortzen da, pentsatzen duena esaten duenaren bidez jasotzearen. (Catedra 1989, 9)

3.3.1. LANDA METODOEN HISTORIA ETA ADIBIDE KLASIKO BATZUK:

Etnografiak oinarrizko fase gisa landa lana dauka. Baina honek etnografiak bezala, esanahi asko eta ezberdinak izan ditzake ikertzaile ezberdineentzat, eta ez da antropologoen metodo eskusiboa, eta arrunta da soziologo, politologo, psikologo sozialak, epidemiologo, herizain, pedagogo eta abar landa lanako ikerketak egiten aurkitzea. Hau ez da inoiz berdina izan ikerlari guztientzat, ezta momentu historiko ezberdinetan. (Ferrandiz 2011, 27)

Adam Kuperren esanetan Bronislaw Malinowskyk bere mito propioa eraiki zuen, landa lana antropologiko gisa, antropologian hamarkadetan zehar ezarrita egon den bezala. Malinowskyk ikerketa mota hau plasmatu zuen “Los argonautas del pacífico occidental” (1979) lanean, bai antropologia amerikarrean bai ingalaterrakoan, diziplina honen ikerketa nagusi gisa. Baina zalantzan jarri eta kritikatu izan zen hark landa lanean erabilitako materialak lehen eskuko izatea, heren kalitatea baxua izatea eta erregistroko tekniken irizpide definituak ez egon izana. (Ferrandiz 2011, 28)

Lewis Henry Morganez ere esaten da teknika eta galdetegien garapena sustatu zuela, progresiboki jasotako datuen kalitatea eta balio konparatiboa areagotzeko. (Ferrandiz 2011, 28)

Bestetik, Marivin Harrisek, Franz Boas eta haren inguruko gizarte antropologoen arau eta irizpide etnografiko hobetuak sortu izana deusestatzen du, hauek XIX. mendean zehar izan baitira bilduak hazkunde gradual bateko lerro jarrai batean. (Ferrandiz 2011, 28)

Landa lanaren iritsiera diziplina honetara prozesu gradual gisa uler daiteke, datu eta iturri etnografikoen balioaren inguruko perspektiba kritikoa batekin batera. Gizarte zientzietan era metodiko batean datuak jasotzen hasten dira XVII. mendearen erdialdean. Espezimen botanikoekin batera talde kulturalen eta haien ohitura deigarri eta exotikoen informazioa ulertzen hasten da. “La société observateurs de l’Homme” izan zen gizarte antropologiko ezagun lehena. Instituziotik hainbat teknika eta gida eskaini zuten lan hau burutzeko, baina hauek ez ziren erabiliak izan eta lanaren emaitzak ondorengo etnografietako galdetegiak izan zuten eragina. (Ferrandiz 2011, 29)

John Urryren esanetan, antropologia ikasketa landa gisa ezarri zen 1840ko hamarkadaren inguruan, bai Amerikan, baita Europan ere. Adibidez sortu ziren “Société Ethnologique de Paris”, “Ethnological Society of London” eta “American Ethnological Society”. Sozietate zientifiko hauengatik eztabaidaz gain beste kulturetako informazioaren bilkura eta argitarapena areagotzen dira. (Ferrandiz 2011, 30)

Garain honetan, oinarrizko kezka kultura anitzen ohitura eta instituzioen konparaketa zen, haien historia eta difusioa edota lege ebolutiboak ezartzeko. Horretarako ahalik eta kultura gehiagoren informazioa behar zen. Denbora tarte honetan, galdetegiaren ezarpena eta hobekuntza izan ziren egin behar nagusiak, zeinetan hasieratik hainbat muga eta arazo aurkitu ziren. (Ferrandiz 2011, 30-31)

Kulturak ezin ziren unibertsitate edota sozietate zientifiko baten bulegotik ulertu, hala ere datuen biltzaile batzuk ere egon ziren, adibidez : A.W. Howitt, Australian lan egin zuena. (Ferrandiz 2011, 31)

EEBBn ez zuten Europako egoera bera bizitzen, herrialdean bertan natibo propioak aurkitzen zituztelako. Bertako azterketa datu gramatikal eta linguistikoetan zetzan, eta datu hauen bilkura sistematiko lehena H.R Schoolcraftek egin zuen. Honek ospea izan zuen museo eta unibertsitateetan, batez ere “Smithsonian Institution”ean (1846), honek gobernuaren laguntza jaso zuelarik. Baina bereziki, “Bureau of Ethnology”n indio eta ipamerrikarrekin zerikusia zuten gaiak ezarri zituenean laguntza hauek hazten hasi ziren. Bureauaren zuzendaria John Wesley Powell izan zen, zeinek ikerketa lokala estimulatu zuen, eta datuen biltzaileek galdetegiak betetzeko estruktura bat sortu zuen. Berarekin lan egin zutenen artean Frank Hamilton Cushing zegoen, honek ikuspegi natiboa bereganatu nahi izan zuen eta zuñiekin egon zen lau urte eta erdiz, bere hizkuntza ere ikasi zuelarik. Kritikariak natibo bilakatu zela leporatu zioten. (Ferrandiz 2011, 31-32)

Morgan ere garai honetan aitzandari izan zen, haren ikerketetan metodo anitzak nahasteagatik, baina batez ere landa lanean ikertzailearen presentziari ematen zion garrantziagatik (behaketa partehartzailearen defendatzaile). Hala ere, Iroqesekin egindako lana ere ezin zen landa lana etnografiko gisa hartu, oraindik ez baitzuen komunikazio bat lortu haiekin. (Ferrandiz 2011, 32)

1884an, “Brithis Association”ek, Canadian bildutakoak, batzorde bat ezarri zuen Canadako indigenen arteko ikerketa bat bultzatzeko, “Circular of Inquiri” (1887) ikerketa gida sortu zuelarik. (Ferrandiz 2011, 32)

Beste alde batetik, Boasek oso paper garrantzitsua betetzen duela britaniar antropologian esan beharra dago, batez ere eremuaren ikerketan. Bere <puritarismo metodologikoa> (Marvin Harrisen esanetan) bi artikuluetan azaltzen du: “The limitations of the Comparative Method in Anthropology” (1896) eta “The Method of Ethnology” (1920), zeintzuetan metodo konparatibo eboluzionista eta metodo difusionista kritikatzeko dituen. Hauen kritika partikularitasun kulturalen azterketa zabalaren faltaren eta teoriarako emandako saltoan datza. Honela metodo menperatzaileak kritikatzeko zituen superfizialak eta azientifikotzat joz. (Ferrandiz 2011, 33)

Nahiz eta Boasek pertsonalki landa lan asko egin duen bere metodoen enfasia informatzaile partikularren bidezko informazio bilketan zetzan; indigenak entrenatzen ziren haien kultura

propioetako informazioa jasotzeko haien hizkuntza propioan. Honek guztiak material, informe, testu eta talde kultural espezifikoaren inguruko era guztietako xehetasunetan zailtasunak izan zituen emaitzat. (Ferrandiz 2011, 33)

Ingalaterran, landa lanen teknika antropologikoen garapenaren une garrantzitsua Estrecho de Torresera egindako “Cambrige Anthropological Expedition” izan zen (1898-1899). Kideen artean W.H.R. Rivers, antropologia medikuaren aitzindaritzat jotzen dena aurkitzen zen. Honek test psikologikoak administratzen zituen eta metodo genealogikoa garatzen joan zen, zeinetan gertaera zehatz batzuen bidez arazo abstraktuak ikas zitekeen. Hauek ere erabiliak izan ziren Indian eta Melanesian. Riversentzat ahaidetasuna ez zen garrantzitsua berez, baizik eta bestelako prozesu sozialen islatzat ulertzen zuen. Riversen ustetan lortzen zuten guztia guztiz objektiboa zen, hots, zientifikoa. (Ferrandiz 2011, 34)

1910an, antropologoak formatuago edo adituagoak ziren eta bat egiten zuten metodoen erabilpenean. Lehen Mundu Gerrako testuinguruak haren landa lanaren luzapena ahaldebitu zion Malinowskyri, bere gerturapen metodologikoaren modernitateak bizitza sozialaren behaketa zuzena, natiboaren hizkuntza ikastea, oharrak hartzea, material etnografikoaren bilkura sistematikoa eta denbora luzeko estantzia barne biltzen zuen eta honek iraultzaile moduko batean bilakatzen zuen. (Ferrandiz 2011, 35-36)

EEBBn ordea azterketa metodoen transformazioari ematen zioten garrantzia, 1900 eta 1940 urteen arteko lan gehienak era indibidualekoak izan ziren eta askotan denbora luzean zehar egindako bisiten sekuentzia motzak ziren. Testuinguru honetan, esaten da Margaret Meadel honekin guztiarekin apurto zuela. Honek 23 urte zituela Samoan egin zuen landa lana, eta Malinowskyren ikuspegi holistikoaren aurrean berak aspektu zehatzago bat erabili zuen. “Adolescencia y Cultura en Samoa” (1995) izan zen haren obra nagusietako bat, zeinetan natura eta kulturaren kontzeptuak landu zituen, honetan giza biologiaren plastizitatea eta determinismo kulturalaren garrantzia giza biologiaren plastizitatea eta determinismo kulturalaren garrantzia azpimarratzen saiatu zen. Berak ere esperientzia samoanetik ikas zitekeela estatubatuar eskolen hezkuntza aldatzeko (hobetzeko gehien bat) defendatzen zuen eta Helen Elizabeth Fisher eta George E. Marcus kulturaren kritikaritzat hartu zuten Mead. Baita aitzindari izan zen ere metodo audiobisualak erabiltzen, Bali eta Nueva Guineako landa lanetan. Oso kritika gogorrak jasan izan zituen, oso kalitate baxuko lana egin zuela leporatzen baitzion Derek Freemanek esate baterako. Aitzindari izan zen esparru femenino batean emakume izanda lan egiten, horren harira antropologo feminista batzuek Freeman en erantzuna matxistatzat hartu zuten. (Ferrandiz 2011, 36-38)

3.3.2. ETNOGRAFIAREN HASTAPENAK ETA BILAKAERA:

Kulturen inguruko kezka, XVIII eta XIX. menden artean kokatzen da nagusiki, antropologia garai hartan sortu zelarik arlo zehatz bezala. Baina, honako mendeen aurretik, bazen kezka nagusi bat gizakien artean, Ilustrazioan, hain zuzen, gizakionganako kezka nagusitu zen, oinarrian gizakia jarritz eta gizarte teozentrista batetik, antropozentrista batera igaroz eta korrante humanistak sekulako garrantzia izanez. (Pujadas 2010, 26)

Hala ere, greko-erromatarren garaian du hastapena beste kulturen inguruko deskribapenak. Garai hartan, literatura genero gisa ulertzen ziren honako azalpenak eta XIX. mendera arte, ez da zientzia formal gisa planteatuko honako ezagutza. (Pujadas 2010, 26)

Garai zehatzetan sartu aurretik, aipatu beharra dago, Zesarren garaitik gaur egungo etnografoetara sekulako aldaketak izan direla eta denbora tarte guzti honetan, arrazoi desberdinengatik burutu izan dela deskribapen sakon hau. Batetik, mendebaldearen zabalketa gosez, kolonialismoa suertatu zen eta kultura ezberdinen arteko kontaktu etengabea sortu, besteenganako interes mugagabea izanez. Bestetik, konkista horien harira gertatutako kulturalizazio prozesuen baitan sortutako etnografia lanak, zapaltzaileek zapalduen inguruko informazioa izan zezaten. Eta azkenik, interes pragmatikoetarako tresna bezala, esan bezala, konkisten garaian, misio horietarako erabiltzen zen etnografia. (Pujadas 2010, 27)

Hortaz, lehen esan bezala, greko-erromatarrekin azaldu ziren lehenengo etnografiak, beste lurraldeetako zein beren lurralde propioen inguruko hausnarketak zein deskribapen mamitsuak plazaratu zituztelarik. Herodotok, Errusia hegoaldeko herriak aztertu zituen, Platonek, aldiz, gizartearen hastapenen inguruko ikuspegia plazaratu zuen, Tuzididesek atenastar kultura ikertu zuen, Estrabonek, berriz, Iberiar penintsulako herriak, Zesarrek, Ingalaterra zein Frantziako lurraldeak, Katonek, Erromako esklabuen inguruko ikuspegia, Tazitok, germaniar barbaroen deskribapena gauzatu zuen, baita planteamendu teorikoak ere eta Lukreziok garapen sozial zein kulturala aztertu zituen. (Pujadas 2010, 28-29)

Ikus dezakegun bezala, sekulako etnografia pila sortu zen honako garaian, nahiz eta antropologia ez zen zientzia sozial bezala ezagutzen. Beraz, halako lanak, literatura generoaren baitan sailkatuak izan dira, nahiz eta etnografia paregabeak izan badiren. (Pujadas 2010, 26)

Denboran aurrera eginez eta Erdi Aroan barneratuz, etnografia gehiago aurki ditzakegu. Honakoak, beste herriekiko estereotipoetatik eraikiak izan ziren, hau da, testuinguru kultural propioaren arabera epaituak izan ziren mendebaldekoak ez ziren herrialdeetako kultura zein gizarte guztiak. Honako lanen baitan, Marco Polorena da adierazgarrienetako bat, munduan zehar eginiko hemezortzi urtetako buelta ikaragarri horretan aurkitutako guztia batuz. Hala ere, ez zen bakarria izan, aipagarriak dira ere, besteak beste, Ibn Batuta, Cheng Ho, Cabeza de Vaca, Carvajal, Bernal, Velho, Cardoso, Pinto edota Pigafetta ere. (Pujadas 2010, 30-31)

Aurreko bi fase horien ondorengoa, Indietako (Ameriketako) kronistena izango litzateke. Honakoek, XVI eta XVII. mendeen artean burutu zuten beren lana. Denbora tarte honetan, etnografia garaikidearen hastapenak suma daitezke. Testuinguru guztiz kolonizatzaile batean murgildurik, etnografia egiteko lehen helburu edota zergatia, zapalduko ziren herriak ezagutzea zen, honakoak nola konkistatu jakiteko eta triskantza era natural zein errazago batean burutzeko. Talde honen baitan kokatu daiteke, Fray Bernardino de Sahagun frantziskanoa, kristautasuna eta kultura mendebaldarra herri indigenetan inposatuz eta bertan egiten ziren triskantzak justifikatuz. (Pujadas 2010, 32)

Hala ere, garai inposatzaile eta zapaltzaile horren baitan, kritikak sortu ziren eta honakoak burutu zituztenak beste bi talderen baitan kokatzen dira, etnografiari dagokionez; pentsalari utopikoak batetik eta teoriko errebeldeena bestetik. Lehenengo taldeak, Tomas Moro, Francis Bacon, Vasco de Quiroga edota Jean-Jacques Rousseau barnebiltzen ditu, bigarrenak aldiz, Francisco de Vitoria eta Juan Mariana. Hala ere, honako bi korronteetan adierazgarriena, Fray Bartolomé de Las Casas da, indigenen defendatzaile amorratua izan zelarik eta berrikuntza legal txikiak ezarriarazi zituelarik, euren eskubideak aldarrikatuz. (Pujadas 2010, 33)

Honako fasea pasata, XIX.mende hasierara pasako gara, bertan, Charles Darwin ikerlari famatu zein paregabea aurkituko dugularik. Honakoaren eskutik etorri zen eboluzioaren teoria eta ondorio hauek sekulako garapena izan ziren giza zientzientzat. Bere ikerketaren ondorioz, teoria eboluzionistak garatu ziren, antropologiari hasiera emanaz eta lehenengo teoria formalak eraikiz. Darwinek berak ere sortu zuen etnografia andana, eginiko espedizioetan ikusitakoa deskribatuz eta bere sententzioak azaleratuz. (Pujadas 2010, 35)

Esan bezala, XIX.mendean, etnografiak gorakada garrantzitsua izango du, Europan, honekiko interes nabaria azalduko da. Erromantizismoaren ondorioz, herrien ezaugarri propioen zein nazio eta nazionalismoen aldeko argudiaketa ezberdinak azalduko dira eta beraz, aniztasunaren aldeko irakurketek geroz eta indar handiagoa hartuko dute. Hala ere, eboluzionistek, kolonizatzaileen paperean jarraitu eta zapalduko herriak maila baxuagoan zeudela argudiatzeari ekin zioten euren lan makabroen bidez. Horien artean kokatzen dira, John Lubbock edota Lord Avebury. (Pujadas 2010, 38-39)

3.3.2.1. IPAR AMERIKAKO ETNOGRAFIA

XX.mendean, antropologia bere garairik gorenenean sartzen da, batez ere Ipar Amerikan. Bertan, Franz Boas, Margaret Mead, Julian Steward edota Leslie White bezalako izen esanguratsu zein ezagunak aurki ditzakegu. Antropologiaren loraldia izan zen honako garaia.

Franz Boas, jatorri alemaniarrekoa, Ipar Ameriketako antropologiaren aitatzat hartzen dute askok, berak sortu zuen akademikoki honako ikasketak egiteko aukera eta figura dominatzailea izan zen berrogei urte luzez. Alaskan eta Columbian burutu zituen hainbat lan etnografiko, bertako hizkuntza ikasi zuelarik eta hainbat liburu idatzi zituelarik haien inguruan. Bestetik, geografia ikasketak burutu zituenez, honako lurraldeak kartografiatu eta bertako hizkuntza eta kulturen arabera mapa bat osatu zuen, muga kulturalak kontuan hartuta lurralde banaketa fisiko bat eginez.

Antropologo garrantzitsu honen ikasle izan ziren, Alfred Kroeber, Edward Sapir, Clark Wissler, Robert Lowie, Paul Radin, Leslie Spier, Margaret Mead edota Ruth Benedict bezalako pertsonaia esanguratsuak, gerora, etnografo eta antropologo ezin hobeak izango zirenak.

Boasen jarraitzaileek ikuspegi konparatibistan jarri zuten fokoa, mendearen lehen erdialdean jasotako material etnografikotik abiatuta. Garai hartan, gainera, nortasunaren egituraren eta izaeraren aldakortasunaren inguruan ere dextente ikertu zen; eta baita genero kategoriei eta giza sexualitateari dagokionez ere, batez ere, Margaret Mead-en eskutik. 20. hamarkadaren amaieratik II. Mundu Gerraren amaierara bitarte, AEBetako etnografia sendotzen joan zen, ikerketak asko ugartu ziren, behaketa parte-hartzailea oinarritzat zutelarik, baina testuinguru historikoa nahiko ahaztuta zuten. (Pujadas 2010, 42-43)

XIX. mendearen erdialdean, Julian Steward-en eta Leslie White-en lanak garrantzia handia hartu zuen, tradizio boasiarraren kritikatik abiatuta. Haien ikuspegiak gizartearen joera orokorren eta gizarte bakoitzaren forma historiko partikularraren arteko oreka bilatu nahi du eta bide horretan, eboluzionismo multilineal izenez ezagutzen da. Steward-ek zehazki, ingurune ekologikoa elementu funtsezkotzat hartzen du eta bertara egokitzeko tresna gisa ulertzen du kultura. Horregatik, *integrazione soziokulturalaren mailak* kontzeptua garatu zuen, zeinetik tiraka, Elman Service-k banda, tribu, buruzagitza eta estatuen sailkapena garatu zuen. (Pujadas 2010, 44-45)

3.3.2.2. BRITAINIAR ANTROPOLOGIA

Britainia Handia izan zen antropologiaren profesionalizazio prozesua abiatzen lehen herrialdea eta bertan hasieran eman zioten landa lanaren tradizio modernoari. Eboluzionismoarekin apurtzen lehenak, halaber, britainiarrak izan dira, diziplinaren ikuskera zientifiko bat garatu zutelarik. Antropologo britainiarren artean Edward Tylor izan zen aitzindari nagusia. Hark eboluzionismo unibertsal bat garatu zuen, difusioaren zenbait elementu baztertu gabe. Zalantzarik gabe bera izan zen gure diziplinaren bultzatzaile handienetarikoa: kultura kontzeptua mahaigaineratu zuen lehena, irakasle ona, landa lanerako espedizioen bultzatzaile, etab. (Pujadas 2010, 47-48)

Alfred Radcliffe-Brown-ek antropologia zientzia natural gisa ulertzen zuen. Hori dela eta, landa lana eta konparaketa metodoa gizartearen lege unibertsalak lortzearen bidean, orokortzeak egiteko tresnak besterik ez dira. Batez ere, ahaidetasunaren esparruan garatu zuen bere lana, determinaturik dauden helburu zehatz batzuk lortzeko zenbait harreman biologikoren onarpenean oinarritzen den gizarte sistema gisa ulertu zuelarik; eta totemismoaren inguruan teorizatu zuen, bi funtzio nagusi egotziz eta esparru horretan lege unibertsalak aurkitu nahian. (Pujadas 2010, 49-50)

Bera izan zen korronte hau errotu zuen autoreak, baina hala ere, garai hartako antropologorik ezagunena Bronislaw Malinowski izan zen, ondorengo belaunaldietan gehien eragin zuena. Gainera, arlo teorikoan garrantziarik ez badu ere, etnografia modernoaren bultzatzaile eta sortzaile handizat hartua da. (Pujadas 2010, 51)

40. eta 50. hamarkadetan, Edward Evans-Pritchard eta Max Gluckman-en lana nabarmendu ziren eta baita azken honek lideraturiko Manchesterreko eskolako kideenak ere. Lehen autoreak etnografia oso laudatu bat idatzi zuen 1940an, *The Nuer*. Gizarte bakarraren deskribapen etnografiko bikaina da Adam Kuperren (1973, 126) arabera, eta bertatik, interpretazio abstraktu egokiak eratortzen dira. Oso irakurria izan zen liburu hura, baina baita kritikatu ere, etnografia egiteko baldintzen berri ez emateagatik edo gehiegizko abstrakzio eta datu faltagatik. Hala ere, ezin da zalantzan jarri lan horrek duen balioa. (Pujadas 2010, 51-52)

Gluckmanek eta bere korronteak ere ekarpenak egin zituzten etnografian. Evans-Pritchard eta Radcliffe-Brownen planteamenduei gizarte gatazkaren teoria erantsi zaie. Horrek ez zuen gizarte oreka ukatzen, baina sistema instituzionalizatuen eta praktika sozialen arteko talka nabarmentzen du. Manchesterreko eskolak batez ere Afrikan egin zituen ikerketak eta ikerketak horiek guztiek kultura eta gizartearen analisisan ikuspegi historiko edo prozesuala txertatzeko beharra mahaigaineratu zuten. Gainera, metodo, teknika eta idazketa etnografiko eruedetan berrikuntza handiak egin zituzten. (Pujadas 2010, 53-54)

3.3.3. EGUNGO ETNOGRAFIA

Afrika, Asia eta Ozeaniako lurraldeen deskolonizaziotik aurrera, hots, 70. hamarkadatik aurrera, mundu mailan etnografiaren egoera aldarazi zuten zenbait faktore agerian geratu ziren. Lehenik, instituzio ofizial ezberdinek antropologiarekiko zuten interes praktikoa murriztu zen, eremu urrunetako lurak galtzean eta beraz, diziplinaren sistema akademikoa krisian sartu eta Britainia Handiko antropologo askok AEBetara emigratu behar izan zuten. Bigarrenik, estatu-nazio gisa eratu ziren herrialde askotan (Saudi Arabia, eta Ekialde Hurbileko beste zenbait) antropologia eta kolonialismoa lotu eta ez zieten diziplina horretako autoreei harrerarik egin; hortaz, harreman ez orekatu horren behin betiko krisia izan zen. Hirugarrenik, herrialde periferikoetan tradizio eta eskola antropologiko berriak agertu ziren, egondako tradizioa berrezarritik (Espainia) edo hutsetik

sortuz (Brasil, Mexiko, Peru). Errealitate gatazkatsuan eragitea helburu zuten tradizio berri horiek, besteak beste. Laugarren eta azkenik, ikerketen fokoa exotikotik bertakora pasa zen, errealitate soziokultural hurbilak aztertuz. Izan ere, autore ugari ohartu dira ikerketa objektuen konplexutasuna ez dela aztertzen den errealitatearen araberakoa, baizik eta hura aztertzeko moduaren araberakoa. (Pujadas 2010, 54-56)

Azken urteetan etnografiaren inguruko eztabaida posmodernismoaren baitan kokatu izan da. Autokritika, hausnarketa eta esperimendazioa oinarri izanda, planteamenduak anitzak izan dira azken 20 urteetan. Posmodernismoak eszeptizismoa eta ezkortasuna erakusten du etnografia modernoaren aurrean; korrante moderatu eta erradikalagoak bereizten direlarik. (Pujadas 2010, 56-57)

Korrante moderatuaren kritika arlo testualera mugatzen da eta bertan, James Clifford, Clifford Geertz eta Denis Tedlock nabarmendu ziren. Korrante honek etnografoaren autoritatea kolokan jartzen du. Clifford-ek esaterako, etnografiak ezagutza objektiboaren iturri gisa ulertu beharrez, behatzailearen subjektibitatea eta mendebaldeko balore eta kategoriak barnebiltzen dituen testu eraiki gisa ulertzen ditu. Geertz-ek bere aldetik, landa lanaren balioa jo puntuan jartzen du, han egote horri objektibotasuna kenduz edo zalantzan jarriz. Bere esanetan, errealitatearen irakurketa posibleetako bakarra islatzen da etnografian eta horren aurrean, etnografia polifonikoa proposatu zuen, ahal bezain beste interpretazio edo enfoke barnebilduko dituenena. Tedlock-ek azkenik, landa lanaren zutarr nagusia den elkarrizketa edo interakzioaren arteko talka sumatu zuen, etnografiaren produktutik prozesuko izaera dialogikoa ezabatzea kritikatu zuelarik. Izan ere, autoreak datuen aukeraketa selektibo bat egiten du, bere irakurketa hegemonikoa sendotze aldera; azken finean bere autoritatea harreman intersubjektibo eta horizontalen gainetik jarriz. Orokorrean, talde posmoderno moderatu horrek lau ekarpen egin ditu: etnografietan poetikaren elementuak kritika literarioaren bidez deseraikitzea; irudikapen kulturalen monologismoa gainditzeko teknikak bilatzearen beharra azalratzea; testuinguratzeko politiko, ekonomiko eta soziala baztertzen duten mistifikazioei kritika eta mendebaldeko inguruko kritika kultural eta soziala erdian jartzen duen praktika etnografikoa. (Pujadas 2010, 57-61)

Erroko posmodernisten artean Stephen Tyler da ezagunena. Haren iritiz, gizarte errealitatearen deskribapen oro "besteen" kultura zapaltzen duen mendebaldeko estrategiaren parte da. Posmodernismo honek zenbait arazo ditu. Batetik, kritika alor epistemologikora mugatzen da mendebaldearen dominazioaren oinarri materialak azaldu gabe. Bestetik, metodo zientifikoa bere osotasunean kolokan jartzen du ezagutzaren ekoizpenerako alternatibarik planteatu gabe. Zirkulu intelektualista itxi honek zenbait elementu baztertzen ditu eztabaidatik eta hutsaltasunean erori izan da. Proiektu etnografiko antiautoritario baten aldeko pausuei baliorik ez ematea, sistema zilegitzea dakar azken finean. Hortaz, ikuspuntu kritiko suntsitzailea da eta ez eraikitzailea da eta mistifikazioan erortzen dena. Izan ere, fenomeno sozial, ekonomiko eta politiko berriak (hurbileko

antropologia eta migrazio mugimendu handiak) ez dituzte kontuan hartzen eta deseraiki nahi dituzten tradizioak tradizio exotikoak dira. (Pujadas 2010, 62-63)

Ondorioz, esperimentalismoa eta erreflexibismoa alternatibean bilaketan lanean jartzea beharrezkoa da, hori baitagokie gizarte zientzilariei.

3.4. ONDORIOAK

Atal honetan ikusi bezala, etnografia da antropologiaren tresna nagusia eta hura, produkuta ez ezik, prozesu osoa ere bada. Prozesu hori enfokatzeko modu ugari egon dira idazketa etnografikoaren baitan, modu zabalean ulertuta orain dela 2500 urte inguru jaio baitzen.

Egon dira konparaketan zentratzen ziren korronteak; etnografia lege unibertsalak eskuratzeko tresna gisa ulertzen zutenak eta azken urteetan egon dira etnografia modernoaren balioa ukatu dutenak, harreman akademikoak oinarritzeko eredu antiautoritario baten beharra azpimarratuz. Izan ere, gure diziplina ezin da modu estatikoan ulertu. Ez dago hura aplikatzeko modu zurrunik, baizik eta era dialektikoan garatzen joan da, sortzen ziren kontraesanetatik beste ikuskera batzuk garatuz eta hauen hutsuneak ere agerian jarritz, hurrengo belaunaldien landu zitzaten.

3.5. DENBORA PASA

Bila itzazu gai honekin loturiko 9 hitz hizki zopa honetan:

L	B	E	O	J	X	R	H	Y	H	X	M	E	T	Z	P
V	R	X	Q	X	A	Z	G	A	L	D	E	T	E	G	I
U	Q	X	I	U	S	E	E	L	T	N	U	R	V	P	K
U	E	G	I	E	X	E	T	R	U	C	W	U	Y	S	O
M	X	U	A	Y	J	A	N	I	E	Z	T	B	O	T	N
R	E	K	I	A	U	T	O	R	I	T	A	T	E	A	P
T	E	S	T	U	I	N	G	U	R	A	T	Z	E	S	A
Y	U	K	Y	N	C	K	R	O	O	H	E	Y	I	E	R
Q	E	A	B	T	E	F	A	L	N	A	T	I	B	O	A
W	E	O	J	O	B	H	F	V	W	Y	J	Q	I	Y	K
A	L	T	G	R	I	Y	I	G	E	E	L	K	V	O	E
U	O	I	Y	E	O	E	A	Y	O	Z	A	Y	G	L	T
M	A	L	I	N	O	W	S	K	Y	Y	U	F	E	A	A
P	O	S	M	O	D	E	R	N	I	S	M	O	L	O	I
K	O	L	O	N	I	A	L	I	S	M	O	X	T	I	I
E	A	N	I	I	E	H	X	Q	J	E	N	Y	Y	Y	U

4. ETNOGRAFIA TEKNIKAK

4.1. ZALANTZA ARRUNTAK:

1. Zertarako balio du gidoiak?
2. Zein prozesu bereizten dira sakoneko elkarrizketa batean?
3. Zein da elkarrizketa baten esentzia nagusia?
4. Zer urrats eman behar dira elkarrizketa baliogarria izan eta bere fruituak eman ditzan?
5. Transkribapenean antropologoaren iritzia ematea onuragarria da?
6. Behaketa egitean nire asmoen berri eman behar diet behatuei?

4.2. SARRERA:

Gizarte zientzietan gizarte errealitatea ulertzea da helburua. Hori ezin da laborategietan egin; izan ere, gizarte osatzen duen jendearekin harremana izatea eskatzen du. Harreman hori ez da nolana hiko izaten, baizik eta aurreikusia, diseinatua... Etnografian, kultura ezberdinak eta haien baitako elementu ezberdinak ulertzeko zenbait teknika daude, lehenago ere ikusi dugun bezala.

Atal honetan gizarte errealitatea ulertzeko bi prozedura nagusiak izango ditugu hizpide: behaketa parte hartzailea eta elkarrizketa. Bakoitza zertan datzan, nola gauzatu behar den eta zein alde positibo eta negatibo dituen ikusiko dugu.

4.3. AZALPENA

4.3.1. BEHAKETA PARTE HARTZAILEA:

1. Zer da behaketa?

Metodologia kualitatiboa aplikatzeko modurik onena dugu behaketa parte hartzailea. Izan ere, behatzea ezagutzaren oinarrian dago, ulermena behaketaren eta interpretazioaren arteko hartu emanetik baitator. Behatzea helburu zehatzik gabe begirada paseatzea baino gehiago da, baina hala ere, nagusiki bi modu bereizi behar dira: eguneroko behaketa eta behaketa zientifikoa. (Del Val Cid 2005, 29-30)

Guk azken honen berezitasunei erreparatuko diegu. Behaketa zientifikoa aurretiko ezagutza batean oinarritzen da eta diseinu batean jasotako helburu zehatz baterantz norabidetzen da. Diseinu horretan, helburuez gain, faseak, behatzeko leku eta subjektuak bilduko lirateke, aurrekari teoriko batzuei egokituta. (Del Val Cid 2005, 30)

Behaketan zenbait faktorek oso paper garrantzitsua jokatzeko dute. Lehenik eta behin honakoa burutuko den lekua edota eremua dago; horri dagokionez, aztertu nahi duguna garatzen den ingurua izatea komeni da, inguru horretan ahalik eta gutxien eraginez. Bestalde, behatuei behaketaren asmoaren berri ematea edo ez; behaketaren sistematizazioaren malgutasuna; ikerlariaren hausnarketa jarrera; behatzailearen parte hartzea edo parte hartze eza... Azken honekin lotuta, esan daiteke maila batean edo bestean, behaketa oro parte hartzailea dela eta ez dagoela parte hartzailearen eta ez parte hartzailearen arteko bereizketa zurrunik. (Del Val Cid 2005, 31)

2. Zer da behaketa parte hartzailea?

Definizio bat ematearren, behaketa parte hartzailea prozesu ireki bat da, subjektu edo kolektiboaren eguneroko ekintzen biltzea sistematiko, ulerkor eta interpretaziorikoa, bere helburua betetzeko gizarte ikerketako teknika kualitatibo ugari baliatzen dena. Hortaz, autore ugari teknika gisa definitu ordez, ikerketarako estrategia orokor gisa definitu izan dute. (Del Val Cid 2005, 31-32)

Behaketa parte hartzailearen ezaugarrien inguruan, bi debate edo kezka nagusi daude. Batetik, behatuko denarekin distantzia izatearen auzia eta bestetik, behatzailearen subjektibotasunarena. Lehenari dagokionean, distantzia fisikoak ekartzen zituen mugak gainditu dira, baina distantzia kulturala, hasieran behintzat, mantendu egiten da. Bigarren kezka, berriz, beti egon izan da hor, baina ikerlariaren papera da bere gaitasunen bidez bere ikuskera partziala gainditu eta behatuen interpretazioak barneratzea. (Del Val Cid 2005, 34-35)

Behaketa parte hartzailean, hitzak erakusten duen moduan, bi paper jokatzeko dira eta badira zenbait modu paper horiek uztartzeko. Hasteko, bi muturrak daude, bakarrik parte hartzea edo bakarrik behatzea. Bestalde, behatzaile izatea parte hartzen eta azkenik, parte hartzaile izatea behatzen. Denek dituzte bere alde onak eta txarrak informazio jasoketaren eraginkortasunari eta sor ditzaketen kezka etikoei erreparatzen badiegu. Hala ere, ez dago formula magikorik, egoera bakoitzaren mugak ezagutu eta gure papera bertara egokitzea da egokiena. Batzuetan, landa lana luzea denean, paper bat baino gehiago hartu ohi da ikerketak aurrera egin ahala. (Del Val Cid 2005, 35)

Behatzailearen erreflexibitateaz ari garenean, onartu behar da saihestezina dela, murriztu daitekeen arren. Gainera, batzuetan, behatuekin distantzia jakin bat mantentzeak haien errealitatearen inguruko informazio jasoketa zailtzen du. (Del Val Cid 2005, 36)

Esandakoa behaketa parte hartzailea definitzen duten zazpi ezaugarriekin laburbildu daiteke: lehenik, ikerketa objektua ikertzailearentzat gertukoa ez izatea; bigarrenik, aztertuko den eremuan elkarbizitza bat ematea; hirugarrenik, jarrerak haien ikuspegitik aztertzea; laugarrenik, elkarrekintza galdera ireki eta malguetan oinarritua izatea, diseinu ireki baten baitan; bostgarrenik,

behatzaileak behatuekiko paper bat edo gehiago jokatu ahal izatea; seigarrenik, behaketa zuzenaz haratago tekniken konbinaketa egotea eta zazpigarrenik eta azkenik, teorizazio bat barnebilduko duen txosten etnografiko bat idaztea. (Del Val Cid 2005, 36-37)

3. Aurreko lanak (diseinua)

IKERGAIAREN ZEHAZTAPENA

Behaketa bat egiteko funtsezkoa da ikerketa objektua eta hura aztertuko den eremua mugatzea. Askotan esan dugu behaketaren diseinua malgua izan behar dela, baina ezinbestean izan beharko ditu abiapuntu bat. Abiapuntu hori orientazio teoriko bat da. (Del Val Cid 2005, 37-38)

Hala ere, ezin da itsu-itsuan joan aurretiko ideia batekin. Izan ere, zenbait erabaki ezin izango dira hartu eremuarekin lehen kontaktu bat izan arte eta beste batzuk hartu badaitezke ere, askotan esperientziak haiek birpentsatzera eramango gaitu. Hortaz, etengabe prest egon beharra dago landa lana berrinterpretatzeko. (Del Val Cid 2005, 38)

Hortaz, behaketa parte hartzailea prozesu bikoitz baten moduan ulertu behar dugu. Batetik, aztertzen dugun jende eta inguruarekiko parte hartze maila handiagoa bilatzeko prozesu bat da; eta bestetik, ikergaiarekin loturiko arlo esanguratsuenetan zentratzeko prozesua. Zentzu horretan, hiru fase bereiz daitezke: hasteko deskribapenean oinarritzen den fase bat, egoeraren konplexutasuna murriztu eta aspektu zehatzetan zentratzea ahalbidetuko diguna; ondoren, behaketa problematika edo auzi funtsezkoenatarantz enfokatzeko fasea eta azkenik, behaketa selektiboa, aurreko fasean egindako aukeraketan sakonduz, ebidentzia gehiago aurkitzeko fasea da. (Del Val Cid 2005, 38)

IKERKETA EREMUEN AUKERAKETA

Ikerketa oparoa izan dadin, berebiziko garrantzia du leku egokia aurkitzeak. Arazoaren arabera, eremu bat edo bestea aukeratu beharko dugu. Hala, honakoa aukeratzeko, lehenago egindako lanen azterketa burutu beharko da, bai arlo historiko zein geografikoan ere, ahalik eta testuinguru egokiena izan dezagun. Finean, edozein gizarte arazok, funtsa gai sozial zein kulturaletan du. (Lison 2007, 59)

Lan antropologikoa egiterako orduan, kontuan hartu beharko da, herri txikietan edo hirietan lanean ibiltzea oso desberdina dela. Bakoitzean metodo ezberdinak erabiltzeaz gain, ikerlariaren rola ere ezberdina izango da honako eremuetan. Lehenengoan, beharrezkoa da bertako jendearen aurrean ikerlariak bere burua aurkeztea, pertsona arrotz baten presentzia nabarmena baita, eta gainera, kultura ere biziki markatua dago; hirietan aldiz, errazagoa da barneratzea eta kultura ez dago horren zehaztua. Beraz, herrietan errazagoa da kultura bera zehaztasunez aztertzea baina, zuhurtzia handia eskatzen du honakoak. Hortaz, desberdintasun horiek kontuan hartu beharko dira

lanean hasi aurretik, azken finean, segmentazio sozialak ere ezberdinak dira eta honek rolen aniztasuna eragiten du, beraz, egoera gaiarekiko moldatu beharko da. (Lison 2007, 60-63)

Ikerketa eremua aukeratzeko orduan, zenbait faktore hartu behar dira kontuan. Besteak beste, bertara sarbidea erraza izatea, behatzailearen eta behatuen arteko enpatia ahalbidetzea eta ikergaiaren inguruko datuak era egokian jasotzeko aukera ematea. Horretaz, nahi denaren eta ahal denaren artean oreka bat bilatuz, aurrebaldintza teorikoei erantzun behar die ikerketa eremuak. (Del Val Cid 2005, 39)

Ikerketa aurrera eramango den lekuak, bestalde, harreman handia du lana aurkezteko moduarekin. Azken honi dagokionez, komeni da behaketa ezkutatzearen eta gure asmoen aurkezpen oso bat egitearen arteko erdibide bat bilatzea, adibidez, behaketaren berri emanez, baina ez haren helburu zehatzen berri. Zentzu horretan, espazio publiko edo irekiak eta espazio pribatu edo itxiak bereizi behar dira. (Del Val Cid 2005, 39-40)

4. Prozesua

LANDARA SARBIDEA

Behin ikerketa eremua aukeratuta, bertara lehen saltoak garrantzi handia du. Ikerketaren ezaugarrien arabera, estrategia ugari egon daitezke, baina denetan kontuan hartzekoak dira ikerlariaren gizarte-gaitasuna eta zentzu komuna. Akatsak saihesteko komeni da behin eta berriz aipatu dugun bilketa teorikoa egitea eta behaketako protagonistekin lehen hartueman edo negoziaketak hastea. (Del Val Cid 2005, 41)

Lehen aipaturiko bi espazio motetan oso ezberdina da hasierako kudeaketa. Espazio publikoek ez dute aurretiko negoziaketarik eskatzen, bertakoen itxura, jarrera eta jokabide berdinak hartzea besterik ez; eta ez dute behaketaren asmoen berri ematea beharrezko egiten. Espazio itxietan, aldiz, behatuekin negoziaketa bat egin beharra dago eta integrazio gradual bat abiatu, non haiekiko kontaktuaren bidez, tratua eta konfidantza eskuratuko diren. Horrelako kasuetan, bitartekariak funtsezko paper bat jokatzen dute ikerketa gunera sartu ahal izateko eta baita informatzaile klabeek, hau da, behaketaren eszenan posizio egokia duten pertsonak, informazioa eman edo informazioa eskura dezaketen pertsonekin harremanetan jartzeko. (Del Val Cid 2005, 42)

Ezinbestekoa izango da aurreko atalean aipaturiko ezaugarriak erdiestea ikerketa hasterako orduan. Bereziki garrantzitsua da ikerlariak zer nolako jarrera erakusten duen ikertua izango den taldearen aurrean. Hala, antropologoak rol egoki bat eraiki behar du gizarte konkretu horretan, bestela, estereotipoetan erortzeko arriskua egongo da eta hala, ikerketa bera kaltetua izan daiteke. (Del Val Cid 2005, 43)

Honako ezaugarria kontuan hartuta, garrantzitsua da behatu eta behatzailearen artean elkar ezagutza ematea, formalki zein informalki. Hala ere, jakina da ezinezkoa dela talde konkretu bateko kide guztiekin harreman ona izatea, norbanako guztion gizarteetan daude nolabaiteko desakordioak. Baina, honako harremanak ongi kudeatzea da gakoa eta gainera, informazio andana eman diezaguke honako begikotasun ezak. (Del Val Cid 2005, 37-38)

Lanari ekiterako orduan kontuan izan behar da ere, behatuko dugun ekintza bera erreala izan behar dela. Hau da, ezin diegu kultura konkretu horretako partaideei simulaziorik eskatu. Edozein erritual behatu nahi bada, ospatuko den momentu puntual horretan soilik du zentzua, bestela, zerbait faltsua izango da eta ezin izango dugu bere horretan behatu. Hortaz, momentu konkretu horretan jada ez bagaude eremuan bizitzen, gure eginbeharra izango da egun horretan bertaratzea eta erritua aztertzea. (Lison 2007, 64)

BEHATURIKOAREN JASOKETA

Behaketa egiterako momentuan, funtsezkoa da datuak nonbait gordetzea, gerora etnografia osatu bat izateko. Hala, egungo teknologia berriek aldaketa nabaria izan dute informazioa jasotzerako orduan: argazki kamerak, soinu edo irudi grabagailuak, interneta... Garai batean, ez zegoen inolako ordenagailurik eta beraz, datu guztiak eskuz hartzen ziren. Egun, teknologia berrien garapenarekin batera, honako jasoketak ere aldaketa jasan izan du. (Del Val Cid 2005, 46)

Bitarteko teknologiko hauen txanponaren beste aldea behaturiko subjektuengan eragiten den erreakzioa da, hein batean edo bestean, behatzen dugun errealitatea aztoratzen delarik. Irudia izaten da jasotzeko gauzarik zailena; espazio irekietan arazorik egoten ez den arren, espazio pribatuetan negoziaketa gogorak eskatuko dizkigulako. Soinua jasotzea, berriz, errazagoa izaten da, denbora tarte baten ondoren ahanzten baita grabatzen ari digitela eta hortaz, geroz eta ohikoagoak dira ahots grabagailu edo mikrofonoak behaketan eta bertako elkarrizketetan. (Del Val Cid 2005, 46)

Hala ere, informazio bilketarako bitarteko klasikoena eta oraindik ere erabiliena dena, oharren eguneroko idazketa da. Diziplina handia eskatzen duen ariketa da, behaketa eda idazketa uztartu behar direlako etengabe. Izan ere, memoriari paper handia jokatzen uzi gabe, komenigarria da ikusten, entzuten eta sentitzen duguna ahalik eta lasterren apuntatzea, ahalik eta xehetasun handiagoarekin. Fideltasunez jaso beharra dago dena, behatuen eta behatzailearen interpretazioak barne. (Del Val Cid 2005, 46-47)

Apuntatutakoa eguneroko moduan biltzen da, informazio antropologikoko funtsezko elementua delarik. Bertan jendeak egiten duena, haien erreakzioak, gure egoera animikoa eta esperientziak jasotzen dira (non egon garen, nor ikusi dugun, zer eta nola egiten zu(t)en, zertaz mintzatzen ziren...), gerora esperientzia berreraikitzeke balio izango baitugu. Egunerokoa, jakina, egunez egun berritzen joango da, baina normalean, diseinu argirik gabe. (Del Val Cid 2005, 47)

DATUEN AZTERKETA

Etnografiako azken pausua txosten definitiboaren idazketa da. Azken txosten horretan landa lanean zehar jasotakoaren zati txiki bat besterik ez da agertuko, ikerturiko auziaren inguruko datu garrantzitsuenak hain zuzen ere. (Del Val Cid 2005, 48)

Azken txostena erredaktatu aurretik zenbait etapa daude, denak ohar mota ezberdinei lotuta. Hasteko, berehalako oharrak izango ditugu; bertan edozein apunte jasoko da, inguratzen gaituenaren inguruan. Ohar zehatzak dira, ulertzeko hitz klabez lagundurik. Bertan, behatuaren adierazpen literalak eta behatzailearen hizkera zaindua ongi bereizi beharra dago. Bigarrenik, ohar zehatz garatuagoak izango ditugu, eguna amaitzean aurrekoen gainean, esperientzia berreraikitzeetik lorturikoak. Bi mota bereiz daitezke; berehalako oharrak garatu, xehetasunak gehitu eta sekuentzia kronologiko argi bat txertatuko diotenak eta ikertzailearen esperientzia pertsonala jasoko dutenak, egoerak testuingurua emanaz. Hirugarrenik, ohar analitikoak garatuko ditugu, aurrekoak egituratu, elkarrizketak gehitu, marko teorikoa kontuan hartu eta gaika sailkatzearen ondorio direnak. Laugarrenik eta azkenik, azken txostenera helduko gara, non soilik funtsezkoa dena agertuko den eta landa lanaren azalpen metodologiko gehigarri bat txertatuko den. (Del Val Cid 2005, 48)

Nolanahi ere, analisia ez da landa lana edo datuen jasoketa amaitzen den momentuan hasten. Ikerketa prozesu osoan egin beharreko zerbait da, egunero datuak jasoz, eta sistematikoki interpretatuz. Hortaz, aipaturiko lau etapa analitikoak ezin dira elkarrengandik bereizita eta modu estatikoan ulertu. Azkenik, argi izan behar da azken txostenarekin ere ez dela ezer amaitzen. Aztergai horretan sakontzeko eta beste aztergai batzuei era egokiagoan heltzeko hasiera bat besterik ez da. (Del Val Cid 2005, 48-49)

5. Abantailak eta desabantailak

Behaketaren funtsa eta bere prozesua ezagutu ondoren, bere abantaila eta desabantailak ezberdinduko ditugu. Abantailen artean hauek sar ditzakegu: normaltasunetik ateratzen diren errealitateak aztertu eta instituzioen egunerokoa murgiltzeko oso tresna egokia izatea; ikertzailearen kanpokotasuna murriztea; inguruarengan gutxi eragitea, enpatiaren bidez behatuen erreakzioak gutxituz; lehen mailako informazioa jaso ahal izatea, elementu ezberdinen bilakaera ezagutuz eta beste teknika batzuekin uztartzeko aukera dagoenez, emaitzen ziurtasuna handiagoa izatea. Hala ere, ezin dira errealitate bateko fenomeno guztiak aztertu; ikerlarien arabera, fidagarritasun arazoak egon daitezke eta gainera, datuen badira baliagarritasuna mehatxatzen duten zenbait elementu, hala nola, aztertzen dugun errealitateko faktore historikoen ezjakintasuna, informazio ez-zuzenaren zalantza, behaketaren eragina behatuengan, eta abar. (Del Val Cid 2005, 49-50)

4.3.2.ELKARRIZKETA SAKONA:

Zenbakiz eta datu estatistikoz gain gertaeren esanahi sakonak aztertzen dituzten tekniken aurrean sakoneko elkarrizketa daukagu. (Juaristi 2003, 139)

1. Zer da?

Informazioa lortzearen elkarrizketatu eta elkarrizketatzaile baten arteko elkarrizketa profesionala da, beti biren artean egiten da, honek lasaitasun eta etxekotasun egoera eskatzen baitu, hau ez betetzean elkarrizketaren forma alda daiteke eta itaunketa polizialaren itxura har dezake, esate baterako. (Juaristi 2003, 139-140)

Hortaz, konfiantzako harremana sortzen saiatuko gara, elkarrizketatua lasai eta motibatua egon dadin. Elkarrizketa betiere kontrolatua egon behar da, ez da inprobisazioan erori behar. Gizarte Zientzietan asko erabiltzen den teknika da honakoa. (Juaristi 2003, 140)

2. Abantailak eta desabantailak

Abantailak:

- Bertan sortzen den konplizitatea edota etxekotasun egoera anonimotasuna eskatzen duten gaiak ikertzeko egokiena da.
- Aztertu nahi diren gaien faktoreak (arrazoiak, zergatiak , ondorioak) sakonki ezagutzea ahalbidetzen du.
- Gutxi ezagutzen gaiarekiko gertutasuna bermatzeko egokia da.
- Ikerlariak elkarrizketa egiteko gai bada, teknika hau beste batzuk baino merkeagoa izan daiteke. (Juaristi 2003, 141)

Desabantailak:

- Elkarrizketatuak arazoak izan ditzakete euren iritzia nahi duten eran transmititzeko (umeak eta nagusiak batez ere).
- Ikerlaria beti ere elkarrizketatuaren menpe egonen da eta baliteke elkarrizketatuak ez ematea honek bilatzen duen informazioa.
- Elkarrizketatzailearen itxurak eragin txarra izan dezake elkarrizketatuarengan, honek balio gabeko datuak emaitza gisa dituelarik. (Juaristi 2003, 141)

3. Motak

Elkarrizketa sakonen sailkapen asko egin daitezke. Batetik elkarrizketa holistikoen eta fokatuaren arteko sailkapena dago, holistikoetan hainbat gai jorratzen dira, fokatuetan, uneoro gai

berberaren ingurua hitz egiten da. Bestalde, zuzendu eta ez zuzenduen arteko sailkapena. Zuzenduan gidoia zehatz mehats jarraitu behar da (adb, kazetariak). Ez zuzenduan, ordea, elkarrizketatuak elkarrizketaren norabide orokorra zehatzen du. (Juaristi 2003, 142)

4. Sakoneko elkarrizketa egiteko zenbait arau

Elkarrizketa mota hauek hurrengoa hartu beharko dute abiapuntu gisa : kanpo portaeren bitartez ezin dugu gizakiek haien portaerei ematen dioten esanahia ezagutu, hortaz galdetu beharko diegu. Horretarako gidoi egoki bat prestatu beharko dugu, etxekotasun eta lasaitasun harreman bat lortu, toki egokia aurkitu eta informazioa ongi gordetzearekin batera. (Juaristi 2003, 142)

- Gidoia

Aldez aurretik zehaztu beharko dugu elkarrizketaren ordena eta erritmoa, nahiz eta elkarrizketatuaren esanahiak , ideiak, baloreak eta abar ez ezagutu ikertzaileen intuiziotik eta hipotesietatik abiatuz gidoi bat sortuko dugu. Bertan, aztergaiak eta egingo diren galderak azalduko dira, bakoitzari eskainiko zaion denborarekin batera (garrantzitsua baita honakoaren kontrola). Hau elkarrizketan zehar norabidea ez galtzeko tresna gisa izango dugu, hala ere elkarrizketatuaren nahia bestelako norabide bat hartzea bada, errespetatu egin beharko dugu. (Juaristi 2003, 143)

Elkarrizketarekin hasi aurrerik sarrera bat izanen du gidoiak, elkarrizketatzaileak aurkeztu eta ikerketaren helburuak eta datuei emango zaien erabileraren inguruko informazioa emango du. Kontuan izan behar da, beste pertsonen izenak ekidin behar direla, aurreiritziak ez sortzearen, baita, hitz teknikoegiak, informalegiak edota erabilera urrikoak ere, ulerkortasuna bermatzearen. (Juaristi 2003, 143)

Sarreraren ondoren gaiak eta galderak aurkeztuko ditugu. Gidoia elkarrizketan zehar ez galtzeko erabiliko dugun tresna baita, gai guztien inguruan hitz egiteko erabiliko duguna. Honen laguntzarekin elkarrizketatuaren mundu sinbolikora hurbilduko gara, galdera orokorretatik abiatuz sakoneko esanahia duten erantzunetara pasako gara, beti ere subjektibotasuna bilatuz eta jarrera objektiboak alde batera utzita, sentimendu eta iritzien informazio zehatzena lortzen saiatuko gara, betiere kontuan hartuz ezingo dugula nahi duguna nahi dugunean galdetu. (Juaristi 2003, 144)

Gure ikerkuntzak bilatzen duen material etnografikoa lortu nahi badugu gure galderen kalitatea ziurtatu beharko dugu. Lehenik eta behin, galderaren naturaltasuna eta haren benetako edukia argitu beharko ditugu. Bestetik, kontuan hartu beharra dago ere, elkarrizketaren esentziarik nagusia entzutea dela. (Juaristi 2003, 144)

Antropologiak bestea ulertzea bilatzen badu ezberdintasun kulturean giza antzekotasuna aurkitzen jakin behar du, horizontea batetik (antropologoa) bestera (elkarrizketatua) pasatuz. Galderak egiten soilik jakingo du bion artean dagoen kontrastea, honakoa gainditzen badu noski. Bi kulturen arteko talka plazaratzeak ez du etnozentrismo batean erortzea eragingo, horretan atentzioa jartzeak etnozentrismoan erortzea ekiditen du. (Juaristi 2003, 144)

Bestalde, gizakiaren ezagutza ez da asepsia kognitibotik sortzen, bakoitzak bere baloreen interpretazioa egiten du. Hortaz, giza sentsibilitateaz baliatuko gara arrotza den horretara hurbiltzeko, antropologoa bere berezko diziplinaz aparte ere formatu behar baita, bereganatu egin beharko du jokoaren humanitatea. Honela eremu moralak ezagutuko ditu, hauek baliagarriak izanik bere atentzioa bertatik proiektatzeko, arazoaren naturaltasun zehatza bereganatzen lagunduko diolarik ikerlariari. (Juaristi 2003, 144)

- Prozesuak

Elkarrekintza prozesua

Elkarrizketatzaileak, interesa, erantzuteko motibazioa eta konfiantza eskaini behar dio elkarrizketatuari

Prozesu honetan enpatia sortzea beharrezkoa da, eta honetarako hurrengo aholkuak baliagarriak dira:

-Elkarrizketatzaileak bere burua aurkeztu ondoren, elkarrizketaren asmoa edota helburua zehaztu eta bilduko duen informazioari emango dion erabilera argituko dio elkarrizketatuari, eskatzen duen informazioa eskainiz.

-Elkarrizketatuak elkarrizketaren baldintzak onartzean hasiko da elkarrizketa, honek jartzen baititu.

-Elkarrizketatuak ikerketaren balio, erabilgarritasuna eta interesa adierazi beharko dio elkarrizketaren norabidearen arabera, elkarrizketzailea elkarrizketatuaren egoera ulertu beharko du uneoro, nahiz eta honek hau bertan behera uztera bideratu.

-Ez da gaien bizkorregi sakondu behar, galdera zuzenegiak ekidin behar dira.

-Elkarrizketatuaren galdera eta komentarioak errespetu osoz jaso behar dira.

-Ez ahozko komunikazioak ere garrantzi handia dauka, keinuen bidez gure interesa transmititu behar zaie; modu natural, zuzen eta iraunkorrean begiratu behar zaio, keinuetan eta mugimenduetan naturaltasuna erakutsi behar da eta isilik egoten ere jakin behar dugu.

-Informazioa guztia ulertzen saiatu behar da, elkarrizketatua interpretatuz; horretarako antzeko sentimenduak gorpuztuko ditugu, haren sentimenduak laburbiltzen jakin behar dugu eta ez dugu jorratu nahi ez dituen gaitaz hitz egitera behartuko. (Juaristi 2003, 146-149)

Informazioa ateratze prozesua

Bion artean sortutako harremana ezinbestekoa da informazioa lortzeko, hau bitarteko gisa erabiliko da esanahiak ezagutzeko.

Galdera edo gaien aurkezpena

Lehenengo galdera orokorrak aurkeztuko dira eta hau aukeratzeko aholku hauek baliagarriak izan daitezke:

- Erantzun zehatzeko galderak ekidin.
- Zergatik, nola edo noiz galdegaiekin hastea ekidin behar dugu, baita galdera soslaituak ere.
- Lehenengo galderak ez du inolako arazorik sortu behar. Guztiz irekia izan behar da.

Galdera orokorren ondoren zehatzagoak egingo ditugu, gai inbertsonaletatik pertsonaletara pasaz. Gaizki ulertuak argitzeko eta informazioa ulertzen ari garela ikustarazteko laburpenak egingo ditugu, hauek ere gai ei amaiera emateko lagungarriak izanen dira. (Juaristi 2003, 149-150)

Elkarrizketaren susperdura

Elkarrizketa oro blokeatu edo gelditu daiteke hainbat arrazoi direla medio, blokeo egoera hauei aurre egiteko hainbat aholku lagungarri ditugu:

- Isilik egotea; gehiago jakiteko asmoa daukagunean.
- Oihartzuna elkarrizketatuaren azkeneko hitza errepikatuko dugu gai horrekin jarraitu nahi badugu.
- Laburpena: laburpenak eginez esandakoa ulertu dugula adierazten dugu, eta elkarrizketatuak ahaztutako gauzak gogoraraziko ditu.
- Bilakaera: elkarrizketatuak esandakoa zehaztu, elkarrizketa aurrera joan dadila.
- Ekitea: gaiarekiko dauden zalantzak errepikatu, sakontzearen asmoarekin.
- Aipamen aukeratua: elkarrizketatuak esandako garrantzitsuena aipatzea.
- Hozkailua: aurretik pentsatutako gaiak erabiltzea elkarrizketa blokeatzean.
- Atsedenaldia: une larrietan egoera lasaituko duen zer edo zer eskaini.
- Lekoratzea: elkarrizketa gai batetik ezin denean atera gaia aldatzea.
- Estimulazioa: elkarrizketatuaren memoria datuak aipatuz estimulatzea.
- Atzerapena: blokeoa gaindiezina bada beste egun baterako uztea. (Juaristi 2003, 150-152)

Informazioa gordetze prozesua

Erosoa den toki bat aukeratzeaz gain, informazioa gordetzea ahalbidetzen dizun sistema aukeratu beharko duzu. Informazioa biltzeko teknika: bideokamerak edota grabagailuak erabili daiteke, baina kontuan hartu beharra dago bat-batekotasuna oztopatu dezaketela, elkarrizketagileak notak hartzen baditu bezala. Hortaz, hobe grabagailuak erabiltzea, ezkutukoak erosotasuna bermatuko dute, beti ere elkarrizketatua konturatzen ez bada, horregatik ez dira gomendagarriak, hau konturatzen bada elkarrizketa bukatzea izango litzatekeelako erantzun posible bat. (Juaristi 2003, 152)

Society of Profesional Journalists elkarte estatubatuarrak kamera ezkuaren erabilera mugatu zuten hiru ezaugarritan:

- Informazioa interes publikoarentzako oso garrantzizkoa bada
- Informazioa lortzeko gainontzeko bideak amaitu badira.
- Albistegietako arduradunek kazetariak tresna horiek erabiltzea onartu beharko dute. (Juaristi 2003, 153)

Sakoneko elkarrizketa egiteko tokirik aproposena, erregistroari loturik tokiari buruz datu gutxi batzuk aipatzea garrantzitsua da, berezitasun horrek elkarrizketa errazten baitu. Elkarrizketa grabatu behar bada, zaratarik ez dagoen toki bat aukeratuko dugu. (Juaristi 2003, 153)

4.3.3.DATUEN AZTERKETA ETA INTERPRETAZIOA:

Argi eduki behar dugu ez dugula elkarrizketatuaren esperientzia modu berean ulertuko, zeharka hurbilduko gara, gure helburua interesatzen zaigun gaia elkarrizketatuak bizi izan duen moduan ulertzea delarik, hiru pauso jarraituko ditugu horretarako:

- Elkarrizketa hainbat aldiz irakurri, bere ikuspegia ahalik eta hoberen ezagutzeko.
- Ondoren, bizitako esperientzia berreraikitzea, testuingurua emanez.
- Ondoren, elkarrizketatuarentzat garrantzia izan duen elementuak aurkitu eta sakonago aztertzea. (Juaristi 2003, 153-154)

4.3.4.AZKEN TXOSTENAREN IDAZKETA:

Aurreko lan guztia egin ondoren azken txostena idatziko dugu, beti ere sarrerarekin hasiz. Honetan ikerketaren hipotesiak elkarrizketaren arrazoiak eta ikerketaren helburuak aurkeztuko ditugu, ondoren lortutako emaitzak eta ondorioak azalduz, bibliografiarekin batera. Kontuan hartuz txostena elkarrizketaren aipamenekin tartekatu behar dugula. (Juaristi 2003, 154)

Hurrengo arauak bete beharko dira atal honetan:

- Elkarrizketatuen fitxa teknikoa sartzea Zeinetan elkarrizketatuaren berezitasunak agertuko diren (adina, sexua, ikasketen maila etab.).
- Ondoren, elkarrizketen transkripzioak eta aipamen zehatzak sartuko ditugu.
- Eta azkenik erabilitako gidoia sartuko dugu. (Juaristi 2003, 155)

4.3.5.KALITATEAREN KONTROLA:

Nahiz eta autore askoren ustetan ezinezkoa den elkarrizketa hauen balioari buruz hitz egitea, hauen kalitatea hobetzeko neurri batzuk har ditzakegu, hurrengo aholkuak jarraituz:

- Aurkeztutako gaiak edota galderak argiak izan behar dira.
- Ahots tonua, galderak egiteko era, edota elkarrizketaren jarrera egokiak izan beharko dira.
- Informazioa grabatzearen eragina ahal den heinean murriztu behar da.
- Elkarrizketatuaren adiera eta elkarrizketatua berarentzat oztupoak izan daitezkeenak ekidin.
- Eztabaidak egiterakoan gidoi berbera erabili.

Zehazki arlo hauek kontrolatu beharko ditugu:

- Datu eta aipamen deskribatzaileak: elkarrizketatuari arazoak planteatzen dizkio gauza guztiak gogoratzeko.
- Koherentzia eza ekidin, argi geratu ez diren gaiak argituz.
- Idealizazioak eta ihesak: elkarrizketatuak alderdi onak eta txarrak izanen ditu, batzuk idealizatu egiten dituen heinean besteez ihes egiten du.
- Interes falta eta nekea; hauek gai garrantzitsuen alboratzea errazten dute.
- Sen ona, interpretazio errezetara bideratzen du ikertzailea, honek neutraltasun handienarekin sartu beharko da jasotako informazioan.
- Eta azkenik, elkarrizketaren barne trinkotasuna ere kontrolatu beharra dago, bildutako informazioa ikerketan zehar bildu ditugun datuekin konparatuz. (Juaristi 157-158)

4.4. ONDORIOA:

Honako atalean, etnografiaren zutarrak diren bi metodo ezberdinen sakontzea (behaketa eta elkarrizketa) burutzearekin batera, antropologia lan egoki bat aurrera eramateko hainbat argibide eman ditugu, denak ala denak beharrezkoak. Honako urratsak jarraituz gero, lan oparo bat plazaratzeko aukera dago, txukuna eta behar bezala idatzia.

Bestetik, behaketa zein elkarrizketa burutu ondorengo pausuak ageri dira baita ere, hala, etnografia egiterako orduan, kontuan hartu beharreko hainbat argibide ere aipatzen dira. Hala, antropologia lan osatu bat burutuko dugu eta kontuan hartu beharreko detailerik txikienak ere ez digu ihes egingo, gizarte errealitatea osoki ulertuz.

4.5. DENBORA PASA:

Bila itzazu hizki zopa honetan gaiarekin loturiko zazpi hitz:

E	L	K	A	R	R	E	K	I	N	T	Z	A	U
P	E	R	I	B	T	Q	E	E	Q	I	G	X	A
R	Y	P	F	I	K	A	J	A	C	I	J	O	X
E	I	A	E	C	P	Q	R	N	C	Q	D	M	U
T	E	K	N	I	K	A	U	E	I	V	R	Y	Q
V	Y	D	O	W	D	Q	U	I	X	T	Y	P	D
U	M	O	B	J	E	K	T	U	O	G	J	O	X
E	P	T	Y	C	W	J	H	B	W	C	E	N	Z
Z	N	C	J	O	E	J	X	O	R	Q	R	U	X
E	S	T	I	M	U	L	A	Z	I	O	A	X	A
P	A	R	T	E	N	H	A	R	T	Z	E	A	Y
B	E	H	A	T	Z	A	I	L	E	Z	F	O	V
E	L	K	A	R	R	I	Z	K	E	T	A	F	X
Z	T	I	U	Q	L	I	R	U	Z	G	N	R	P

ONDORIO OROKORRA

Ondorioz, guzti hau eta gero, argi geratzen da ikerketa baten aurretik hainbat pausu eman behar direla, honakoa ongi egituratua eta osatua izan dadin. Ikerketa guztiek proiektu bat eskatzen dute, eta honek, aipatu eta zerrendatu dugun bezala, hainbat atal ditu. Ikus daitekeenez, gehienak ez dira finkoak, hots, moldatu daitezke, hainbat teknika edota bide aukeratzat ematen direlarik. Nahiz eta bat edo beste aukeratu gida bat jarraitzea ezinbestekoa da ikerketari norabide bat emateko. Zuen ikerketaren norabidea aurkitzen baliagarria izatearen asmoz burutu izan dugu gida hau.

Hortaz, espero dugu, ikerketaren prozesuan pentsatzen hasi baino lehenago, arautegi luze hau laguntza gisa eduki izana.

Osatu dugun gida honetan, baliagarria suertatuko zaizuen informazioa bildu dugu, hainbat iturri izan baititugu eredu.

Honen harira, datorren guztia zuen eskuetan uzten dugu, guk ikerketa bat burutzeko kontuan hartu beharrekoak barnebiltzen dituen gida bat eskaini dizuegu, baina ikerketak berak izango duen izaera eta egitura zehatza zuen erabakia izanen da. Hemendik aurrerako lana etnografo bakoitzaren gaitasunen arabera izanen da, edukian islatuko dena.

BIBLIOGRAFIA:

Catedra Tomas, María. (1989, orr 1-17) *La vida y el mundo de los vaqueiros de alzada*, CIS-Siglo XXI. Madrid.

Del Val Cid, Consuelo eta Gutiérrez Brito, Jesus. 2005. *Prácticas para la comprensión de la realidad social*. Mc Graw Hill

Ferrandiz, Francisco (2011) *Etnografías contemporáneas* Barcelona: Antrophos

Jociles Rubio, Maria Isabel. 1995. “*Las técnicas de investigación en antropología. Mirada antropológica y proceso etnográfico*”. 1-22 *Gazeta de Antropología*, 1999, 15, artículo 01.

Juaristi Larrañaga, Patxi (2003) *Gizarte ikerketarako teknikak* Bilbao:UPV-EHU

Lison Tolosana, Carmelo. 2007. *Introducción a la antropología social y cultural*. Madrid: AKAL

Pujadas, Joan J. (2010) *Etnografía* Barcelona: UOC

San Martin, Ricardo. 2003. *Observar, escuchar, comparar, escribir*. Barcelona: Ariel.

Tellez, Anastasia (2007) *La investigación antropológica* Alicante: Editorial Club Universitario.

Zarraga, Arkaitz eta beste batzuk. 2010. *Soziolinguistika eskuliburua*. Andoain: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.